

Nerudaren postaria

Antonio Skármeta

itzulpena:
Patxo Telleria





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ANTONIO SKÁRMETA

Nerudaren postaria

itzulpena:

Patxo Telleria

AURKIBIDEA

sinopsia

parte hartzaileak

Nerudaren postaria

I

II

III

IV

VII

VIII

IX

X

XI

XII

XIII

XIV

XV

Epilogo

sinopsia

Istorioa Txilen kokatzen da, 1969tik 1973ra bitartean hain zuzen.

Mario Txileko herriska batean bizi den mutil gaztea da. Mario arrantzan aritzen da bere aitarekin batera, baina ez du inolaz ere gogoko egiten duen lana. Behin posta bulegoko atean zintzilik dagoen notatxo batean postari laguntzailea behar dela irakurri eta bitan pentsatu gabe bere burua aurkezten du. Marioren lan berria gutunak Isla Negrara eramatea izango da, zehatzago esanda, Pablo Nerudari eraman beharko dio posta. Poetak idazteko eta lasai egoteko etxetxoa du Isla Negran.

Egunen joanean adiskidantza berezia sortuko da bien artean. Nerudak olerkien mundua hurbilduko dio Mariori, metafora aberats, ezti eta zentzualer osaturiko unibertsoan murgilduko du. Mariok Beatriz Gonzalez ezagutu eta itsu-itsu berarekin maiteminduko da. Neska erakartzeko Nerudari laguntza eskatuko dio.

Txileko Lehendakartzarako hauteskundeak ospatzear daude. Alderdi Komunistaren hautagaia Neruda da eta beraz, kanpainan parte hartzeko badoa Isla Negratik. Mariok bere kabuz maitemindu beharko du Beatriz, ez du beste erremediorik. Halere, gauzak ez zaizkio berak nahi bezala ateratzen. Rosa, Beatrizen ama oztopo gaindiezina da. Neruda Isla Negrara itzuliko da, alderdi ezkertiarak elkartu eta hautagai bakartzat Salvador Allende aurkeztu dutelako. Nerudaren laguntzari esker Mariok Beatrizekin ezkontzea lortuko du.

Allendek hauteskundeak irabazi ondoren Neruda Txileko enbaxadore izendatzen du Parisen lan egin dezan. Allenderen garaipenak, lorpen sozialei dagokienean, aurrera pausu ikaragarria suposatuko du. Dena den, Estatu Batuetako multinazionalak eta Txileko sektore kontserbadoreenak ez datoz bat gobernu berriak hartu duen norabidearekin eta Allende kargutik lehenbailehen kentzea erabakitzen dute. Horretarako desestabilizazio plan bat jartzen dute martxan. Txileko ekonomia krisi sakonean murgiltzen da. Mario egoera hau sufritzen duenetako bat da, baina batez ere, Neruda, bere lagun mina berarekin ez dagoelako sufritzen du.

Txileko egoera larriagotuz doa, estatu kolpearen mehatxua argia da. Gauzak horrela, Neruda Isla Negrara bueltatzen da, baina gaixo dago eta Mariok ezingo du ikusi.

Augusto Pinochetek, beste komandante batzuekin batera, ordenu konstituzionalaren kontra eraso egiten du. Inork ezingo du estatu kolpea eragotzi. Mariok Nerudarengana joan eta berarentzat dagoeneko pilatu den posta eramatea erabakitzen du. Neruda hiltzorian dago. Biak elkarrekin daudela soldaduak hurbiltzen dira eta...

parte hartzaileak

Pablo Neruda – Fernando Delgado, Ramón Castro

Mario Jiménez (postaria) – Txetxu Altolagirre

Cosme (posteteko zuzendaria) - Patxi Ugalde Rosa

Gonzalezen alarguna – Justi Larrinaga

Beatriz Gonzaaez – Katrin Shegel

Labbé diputatua – Jokin Oregi, Mikel Martinez

–

Zuzendaria – Carlos Panera

Egokitzapena – Jokin Oregi eta Carlos Panera

Itzulpena – Patxo Telleria

Zuzendari-laguntzailea – Mikel Martinez

Eskenografia – Carlos Panera eta José Ibarrola

Argiztapena – Javier Ulla eta Jon Mezperuza

Jantziak – Teresa Antón

Atrezzoak – Juan Marchante

Publizitatea – Paradox

Ileapainketa eta makilaia – Aitor Marcos

Argazkilaria – Mikel Alonso

Ikusentzutekoak – Eneko Lorente

Dokumentazioa – Julen Elozegi

Musika-grabaketa – Estudios Tío Pete

Talde teknikoa – Jon Mesperuza. Justo Ozaeta. Jose Luis Carreira "Karre"

Kudeaketa, banaketa, ekoizpena – Maskarada S.L

Nerudaren postaria

I

Posta bulegoa. COSME ohar bat idazten ari da, geroago sarrerako atean kokatuko duena.
MARIO sartzen da.

MARIO: Egun on.

COSME: (Bere lanean buru belarri) Zer nahi duzu?

MARIO: Ea nirea heldu den.

COSME: Baina... Ez al nizun esan ba, zerbait iristekotan neronek eramango nizukeela etxera?

MARIO: Bai, baina ez zara etorri, eta...

COSME: Horrek esan nahi du zuretzako ezer ez dagoela.

MARIO: Barkatu, zera pentsatu dut, akaso ahaztu zaizula edo...

COSME: Ba oker zabilta.

MARIO: Nere aitak ere horrelako nahasteak izaten ditu.

COSME: Ni ez naiz zure aita, ordea.

MARIO: Gau batzuetan alarguna dela ahaztu eta amarekin hasten da hizketan... Orain arrantzan dago.

COSME: Eta zuk... ez zenuke berarekin egon behar?

MARIO: Hotza harrapatu dut.

COSME: Aha...

MARIO: Txaluparen hezetasunagatik da.

COSME: Hummm.

MARIO: Txalupara sartu eta bereala harrapatzen nau burutik beherakoa.

COSME: Ulertzen dut.

MARIO: Alerjikoa naiz, agian. (Etena) Ez duzu begiratu behar?

COSME: Begiratu zer?

MARIO: Kajoiren batean egon liteke, galdurik.

COSME: Ez dagoela ba, aldizkaririk!

Cosmek bere oharra bukatu du eta ateruntz doa eskegitera.

MARIO: Ezinezkoa da! (Postal bat ateratzen du kontu handiz) Argi asko dago hemen idatzita: "Aldizkari bat bidaliko dizut, Hollywoodeko aurtengo aktorea onenen argazkiekin; niri gehien gustatzen zaidana Raquel Welch da. Gustabo, zure lehengusu maitea" Berak badaki ni txoratzen nauela... zineak. Urte erdia pasa da jaso nuenetik.

COSME: (Atetik mostradorera bueltan) Ahaztu egingo zitzaion.

MARIO: Ahaztu zer?

COSME: Zuri bidaltzea.

MARIO:Eta zergaitik ahaztu behar zitzaion, eh?

COSME: Nik zer dakit, ba, Estatu Batuetan jendeari gauzak ahaztu egiten zaizkio. Txoro asko dabil hortik.

MARIO: Gustabok nazio ederra dela dio, eta lan eta diru ugari dagoela... Eta gu, berriz, hemen, bah! (Etena) Ez zenuen ba zuretzat gordeko!

Cosmek begirada zorrotz batez erantzuten dio.

MARIO: Ez, seguraski bidean galduko zen. Txileraino iristeko, esku askotatik pasatuko zen eta...
Beno, seguru asko ahaztu egin zaio. (Etsiturik) Agur.

COSME: Humm....

Mario badoa. Handik lasterrera sartzen da berriz.

COSME: Eh, motel, erotu egingo nauzu azkenean!

MARIO: Ez, ez da hori. Atean ipini berri duzun oharragatik da. Postari laguntzailea behar omen duzu, bizikleta eta guzti.

COSME: Eta?

MARIO: Nik badaukala bizikleta.

COSME: Benetan?

MARIO: Erakutsi egingo dizut!

COSME: Ez dago beharrik.

MARIO: Kanpoan daukat.

COSME: Bai, bai... (Zalantzan dago) Beno, kontua zera da, korreoa Isla Negrara eramango duen norbait behar dudala.

MARIO: Bidea primeran, ezagutzen dut.

COSME: Mundu guztiak ezagutzen du.

MARIO: Baina nik ere bai!

COSME: Ez pentsa aparteko lana denik. Soldata kaxkarra da. Eskupekoak baino ez dute irabazten postariek gehienetan.

MARIO: Niregatik, ondo dago horrela.

COSME: Arazoa da kasu honetan hartzaile bakarra dagoela; zinera astean behin joateko ozta ozta ailegatuko zaizu.

MARIO: Pertsona bakar bat?

COSME: Isla Negran denak dira analfabetoak. Fakturak ere ez dituzte ulertzen.

MARIO: Eta, nor da bezero hori?

COSME: Pablo Neruda.

MARIO: Pablo Neruda! Emakumeek maite duten poeta?

COSME: Pablo Neruda, Herriak maite duen poeta.

MARIO: Herriak bai, baina emakumeek ere bai; informatiboan entzun nuen.

COSME: Bai, baina batez bere herriak.

MARIO: Ahh! Zeu ere komunista zara, Neruda bezala?

COSME: Ez, ni sozialista naiz. Baina langile naizen aldetik, poeta miresten dut. Ados?

MARIO: Ados. Eta zertan dabil Isla Negran?

COSME: Etxea dauka bertan. Liburu berriren bat edo idaztera etorriko zen. Poeta batek toki lasaia behar du inspiratu eta lan egiteko. Baina egia esan ez dut uste pakerik aurkituko duenik, egunero sakukada bat gutun jasotzen du eta. Nahiko lan izango duzu zorroa gainean duzula bizikletaz aldapan gora igotzeko. Aurreko postaria gamelu baten konkorrarekin jubilatzen zen.

MARIO: Nik, nik ez dut sekula kartarik jaso. Gustaboren postal hau baino ez.

COSME: Gaztea zara oraindik. (...) Zihur lana nahi duzula?

MARIO: Bai, ziur.

COSME: Zer esango du zure aitak?

MARIO: Ezer ere ez. Poztu egingo da. Beti ari da lan bat bilatu behar dudala esaka. Eta San Antonion bertan lortu dudala esaten diodanean, are pozago. Horrela esku bat eman ahal izango diot etxeko beharretan.

COSME: (Etena) Ondo, ederto. Cosme dut izena.

MARIO: Cosme.

COSME: Zure ugazaba berria naiz, eta Don Cosme deitu beharko zenidake, baina esan dizudanez, sozialista naiz, beraz ez dago beharrik. (Onarpen idazki bat ateratzen du) Baina ez duzu ahaztu behar erabat debekatuta dagoela bezeroei lanarekin zerikusirik ez duten kontuekin molestatzea. Itzal handiko gizona da poeta. Agurtu, eskerrak eman eta eskuopekoren bat ematen badizu, eskerrak ematen dizkiozu osterera ere.

MARIO: Oso ondo.

COSME: Zu zara Mario...?

MARIO: Jimenez, Mario Jimenez.

COSME: (Idazten du) Ondo, Mario. Hona hemen zure txanoa eta zorroa. Derrigorrezkoa da txanoa erabiltzea. Gaur hamabosta da. Hogeitazazpia da soldata jasotzeko eguna. Galderaren bat?

MARIO: (Etena) Noiz hasiko naiz?

COSME: Konstipadua sendatutakoan.

MARIO: Zer konstipadu?

II

Nerudaren etxeko kanpoaldea. Mario heltzen da. Bizikleta utzi eta ateruntz doa. Deitu baino lehen entsaiatu egiten du. Zorrotik liburu bat atera eta Nerudaren aurrean balitz bezala dihardu.

MARIO: Egun on, maisu jauna. Korreoa. Barkatu, maisu jauna, sinatuko zenidake? (Ez dago oso zihur). Egun on, poeta jauna... maisu jauna. Korreoa. Zure liburua eskainiko zenidake? (Berrito saiatzen da) Korreoa... sinadura... Egun on, maisu jauna. Korreoa ekarri dizut. Mario dut izena. Bai, beno, (Barre egiten du) arrazoi duzu. Pablo eta Mario letra kopuru berbera dute, a ze gauza bitxia. Hona hemen zure gutunak. Aizu, barkatu, maisu jauna, aspalditik daukat zure liburu bat. Sinatuko al zenidake? Aldean daramat. Beste kasualitate bat. (Etena) Hola, maisu jauna... Egun on, maixu jauna. (Beste aukera bat frogatzen du). Epa, maisua etxean dago? Bere korreoa ekarri diot. Ez, ezinezkoa da. Nik neuk eman behar diot. Egun on, maisu... poeta jauna. Zure korreoa. Barkatu baina neronek eman behar dizut. Eskerrik asko. Ez nuke enbarazorik egin nahi, baina, sinatuko zenidake, mesedez? (Beste saio bat). Egun on, maisu. Liburua sinatzen badidazu korreoa emango dizut, zer deritzozu? (Balekoa). Egun on, maisu jauna. Zure korreoa. Sinatuko al zenidake?

Azkenean ere deitzera ausartzen da. Zalantza une baten ostean bizikletaren txirrinaz deitzea erabakitzen du. Egin egiten du. Neruda agertzen da. Mario ateraino hurbiltzen da.

PABLO: Egun on.

MARIO: Egun on.

PABLO: Korreoa?

MARIO: Bai.

Nerudak posta hartu eta eskupekoa ematen dio.

MARIO: Barkatu, maisu jauna, zera esan nahi nizun, inoiz zerbait behar baldin baduzu, esnerik edo ogirik, edo... nik...

PABLO: Ez, mila esker. Ondo dago dena.

MARIO: Baina inoiz San Antoniotik zerbait ekarri behar baduzu...

PABLO: Ez dut ezer behar, milesker dena den. (Etxera sartzen da berriro).

MARIO: Ez duzu eskerrik eman beharrik. Egun on.

Mariok liburuari so egiten dio, oraindik sinatu gabe dago. Azkenean beste egun baterako uztea erabakitzen du. Bizikleta hartzen du. Une horretantxe Neruda azaltzen da beriro, kartak dituela, bankuan irakurtzeko asmoarekin.

PABLO: Ez duzu lanik egin behar?

MARIO: Inguru honetan zeu zara gutunak jasotzen dituen bakarra. Zu ez bazeunde, akabo nire soldata.

PABLO: Betirako bizirik irauten saiatuko naiz, ba, langabezian geratu ez zaitezten. (Mariok ez du Langabezia hitza ulertzen). Langabezian... lanik gabe.

MARIO: Lanbide polita dirudi, jendeari gutunak eramatea. Labur laburra egin zait San Antoniotik honainoko bidea. Ez naiz sekula horren azkar etorri. Eta zorroa ta guzti, gainera. Oso lan...

PABLO: (Mostuz). Pozten naiz. Beno ba, eta orain, axola ez bazaizu...

MARIO: Gustora asko jasoko nuke neuk ere gutunen bat inoiz. Beno, bat bidali behar zidaten, baina ez dut uste jada helduko denik. Zer sentitzen da?

PABLO: Gutunaren arabera. Lagun min baten heriotzaren berri emango dizun gutunaren zai bazaude, mina... min lehor bat. Maitasunezkoa bada, egonezina...

MARIO: Egonezina... kilikaren antzeko zerbait da, ezta?

PABLO: Kilikak bazalako, bai.

MARIO: Nik gaur egonezina daukat burutik oinetaraino, nire aurreneko laneguna denez...

PABLO: Bihar lasaiago egongo zara.

Nerudak gutunak hartu eta berehala bat aukeratzen du beste guztien artean. Mariok ezin dio jakinminari eutsi.

MARIO: Nondik dator?

PABLO: Sueziatik.

MARIO: Eta zergatik ireki duzu beste guztiak baino lehen?

PABLO: Gehien interesatzen zaidana delako.

MARIO: Nola dakizu hori, ireki baino lehen?

PABLO: Sueziatik datorrelako.

MARIO: Eta zer du Sueziak apartekorik, neskak kenduta?

PABLO: Nobel Literatur Saria, seme.

MARIO: Zuri emango dizute?

PABLO: Ematen badidate, ez diot muzinik egingo.

MARIO: Zenbat diru da hori?

PABLO: 125.000 dolar.

MARIO: 125.000 dolar! Eta zer dio gutunak? Barkatu!

Nerudak irakurri egiten du.

MARIO:Eta?

PABLO: Hummm?

MARIO:Saria emango dizute?

PABLO: Baliteke, baina badira nik baino aukera handiagoa dutenak.

MARIO: Zergatik?

PABLO: Lan ederrak idatzi dituztelako.

MARIO: Eta gainontzeko gutunak?

PABLO: Geroxeago irakurriko ditut.

MARIO: A!

PABLO: (Etenaldia). Zer darabilzu buruan orain?

MARIO: Beste gutun horiek zer ote dioten. Amodiozko gutunak dira?

PABLO: Gizona, ezkondata nago.

MARIO: Barkatu, Don Pablo.

PABLO: Beno, tori, erosi ezazu zerbait.

MARIO: Mila esker.

PABLO: Gero arte.

MARIO: Gero arte.

Mario geldirik dago.

PABLO: Zer duzu?

MARIO: Don Pablo?

PABLO: Hola geratu behar duzu, zirkinik egin gabe, zutabe baten moduan?

MARIO: Iltzatua, lantza bat bezala?

PABLO: Ez, geldirik, xakeko dorrearen gisa.

MARIO: Portzelanazko katua baino lasaiago.

PABLO: Beste liburu batzu idatzi ditut, "Oda Elementala"-z aparte, motelabbe: MARIO: Liburu gehiago duzu?

PABLO: Bada, bai, eta batzu hori baino hobeak. Ez da bidezkoa metafora eta konparazioen zaparrada hau jasan beharra.

MARIO: Don Pablo?

PABLO: Metaforak, gizona.

MARIO: Zer da hori?

PABLO: Gauza bat adierazteko modua, beste batekin konparatuz. Ulertzen didazu?

MARIO: Emaidazu adibideren bat.

PABLO: Beno, zerua negarrez dagoela esaten duzunean... zer esan nahi duzu?

MARIO: Euria dela!

PABLO: Beno, hori metafora bat da.

MARIO: Baina hori oso gauza erreza da, horren izen konplikatua izateko.

PABLO: Izenek ez dute zerikusirik gauzen erraztasun edo zailtasunekin. Zure teoriaren arabera, hegan egiten duen animal tipi bati ez dagokio tximeleta bezalako izen luzea. Pentsa ezazu

"elefantea" hitzak, "tximeleta" bezainbeste letra duela, nahiz eta askoz handiagoa izan eta egan ez egin. (Etena)

MARIO: Poeta izan nahiko nuke, Don Pablo!

PABLO: Gizona, mundu guztia da poeta. Originalagoa da postari izaten jarraitzea. Horrela, behintzat, bizikletan ibili eta ez zara lodituko. Poeta guztioi sobratzen zaigu kiloren bat.

MARIO: Baina poeta banintz, nahi dudan guztia esan nezake.

PABLO: Eta zer da esan nahi duzuna?

MARIO: Beno, ba hortxe dago kakoa. Poeta ez naizenez, ezin dezaket esan. (Etena).

PABLO: Mutila... Agur esan eta atea itxiko dut.

MARIO: Don Pablo, don Pablo! Zer egin behar da poeta izateko?

PABLO: (Etena). Posta bulegorako bidean, joan zaitetz poliki poliki itxas ertzetik, inguruari begira...

MARIO: Eta metaforak etorriko zaizkit burura?

PABLO: Baietz egingo nuke.

MARIO: (Etena). Eman adibideren bat.

PABLO: Entzun poema hau:

Hemen, irlan

itxasoa

zeinen itxaso zabala.

Bere baitatik irteten da

uneoro,

baietz dio, ezetz,

ezetz, ezetz, ezetz,

*baietz dio, urdinez,
aparrez, indarrez,
ezetz dio, ezetz.
Ezin du geldirik egon,
itxasoa dut izena, errepikatzen du
harri baten kontra joaz,
konbentzitu ezinik,
orduan,
zazpi mingain berderekin,
zazpi txakur berderenak,
zazpi tigre berderenak,
zazpi itxaso berderenak,
harria korritu, musukatu,
busti egiten du
bularra kolpatuz
bere izena errepikatzen.*

Zer deritzozu?

MARIO: Arraroa.

PABLO: Arraroa? Oso kritiko zorrotza zara.

MARIO: Ez naiz poemaz ari. Neu sentitu naiz arraro entzuten ari nintzela.

PABLO: Mario maitea, ea argi azaltzen zaren, ez daukat eta goiz osoa zurekin solasean egoterik.

MARIO: Beno... Poema esaten ari zinela, hitzak hara ta hona zihoazen.

PABLO: Itxasoa bezala, ba!

MARIO: Horixe da, itxasoa bezala mugitzen ziren.

PABLO: Hori erritmoa da.

MARIO: Eta arraro sentitu naiz, hainbeste mugimendurekin, bada, zorabiatu egin naiz.

PABLO: Zorabiatu egin zara!

MARIO: Bai, barku baten antzera nindoan ni, zure hitzetan dardarka.

PABLO: "Barku baten antzera, nire hitzetan dardarka".

MARIO: Horixe bera.

PABLO: Badakizu zer egin duzun?

MARIO: Zer?

PABLO: Metafora bat.

MARIO: Ez!

PABLO: Bai!

MARIO: (Barrez). Baina horrek ez du meriturik, nahigabe irten zait eta.

PABLO: Irudi guztiak dira ezuztekoak, seme. Mundua bera, kasualitate erraldoia da.

MARIO: (Etena). Beraz, zure ustez don Pablo, mundua, mundu guztia esan nahi dut, haizea, itxasoak, arbolak, mendiak, sua, animaliak, etxeak...

PABLO: Eta abar esan dezakezu orain.

MARIO:... Eta abar! Zure ustez munduan den guztia zerbaiten metafora da? (Etena). Pellokeria bat galdetu dizut, ezta?

PABLO: Ez, gizona, ez.

MARIO: Kopeta ilundu zaizunez...

PABLO: Zera, pentsatzen geratu naiz.

MARIO: Galdetu dizudanaz?

PABLO: Hain zuzen ere. Begira, Mario, tratu bat egingo dugu. Ni orain sukaldera noa, aspirinazko tortila bat prestatuko dut zure galderaz gogoeta egiteko eta bihar nire eritzia emango dizut.

MARIO: Benetan, Don Pablo?

PABLO: Benetan. Bihar arte.

MARIO: Bihar arte. Ez duzu sartu behar?

PABLO: Ah, ez, oraingoan zu joan arte itxoingo dut.

MARIO: Bihar arte, Don Pablo. (Bidean). Bihar arte, Don Pablo. Barkatu, maisu jauna, (Liburua ateratzen du) sinatuko al zenidake? Zorroan nekarrela gogoratu naiz eta, molestia handirik ez balitz...

Nerudak sinatzen du.

MARIO: Mario dut izena, Mario Jimenez. Eskerrik asko maisu jauna, egun ona izan dezazula. (Joaten ari dela). Badakizu, maisu jauna? Telebistan baino askoz gazteago ematen duzu aurrez aurre.

PABLO: Mila esker, Mario, oso atsegina zara.

MARIO: Agur, don Pablo! Beno, agur ez, bihar arte, don Pablo!

PABLO: Bihar arte, Mario!

Mario badoa.



III

Posta bulegoa. Mario koaderno zahar batean matefora eta poemak idazten saiatzen ari da. Ez zaio ezer bururatzen. Bulegoan gora eta behera dabiLabbe: Koadernora itzultzen da. Lehenago idatzi duena irakurtzen du. Ez zaio gustatzen eta orria apurtzen du. Berriro ekiten dio. Cosme sartzen da. Korreoa saku batean dakar.

COSME: Egun on. Gero eta goizago etortzen zara, Mario.

MARIO: Egun on.

COSME: Zertan zabilta?

MARIO: Ezertan ez.

COSME: Utzidazu ikusten.

MARIO: Ez da ezer...

COSME: Idazten ari zara?

MARIO: Ez dela ezer...

COSME: Orduan, egia da.

MARIO: Egia, zer?

COSME: Itxasoari begira ikusi zintuztela, zure koadernoan idazten.

MARIO: Ezer txarrik ba al du horrek?

COSME: Ezer ez, Mario. Utzidazu ikusten! (Koaderno harturik). Esaldi bakar bat idatzi duzu.

MARIO: Bai, beno, oraintxe ezabatu behar nuen. Zer deritzozu?

COSME: "Ilargia arrantzaleen linterna da." Besterik ez?

MARIO: Oraingoz ez.

COSME: Polita da.

MARIO: Polita dela uste duzu?

COSME: Bai. Zer da, izenburua?

MARIO: Izenburua? Bai, baliteke. Izenburu ona da, ez duzu uste?

COSME: Don Pablori erakutsi behar diozu?

MARIO: Poema batzu egindakoa, zihur aski bai.

Cosmek korreoa sakutik ateratzen du eta mostradorean laga. Klasifikatzen ariko da. Mariok, bitartean, bere poemarekin darrai.

MARIO: Beharbada, hobe nuke ilargia eguzkiaren izpilua dela esatea, ez?

COSME: Ez dakit, baliteke.

Mario ez da erantzunarekin lar kontentatzen eta orria ateratzen du ostera ere.

COSME: Zergatik apurtu duzu?

MARIO: Ez du balio, ez dago ondo. (Etena). Zure ustez, baliteke bi olatu berdin berdinak egotea?

COSME: Nola berdinak?

MARIO: Bai, berdin berdinak, tamainu bera, indar bera... ertzaren puntu berera iristen direnak.

COSME: Batek daki. (Etena).

MARIO: Hori oso tristea litzateke.

COSME: Triste, zergatik?

MARIO: Bietako bat sobera egongo litzatekeelako.

COSME: Horretaz pentsatzen aritu zinen hondartzan?

MARIO: Atzo ez zen bi olatu berdinek egon.

COSME: (Marioren liburua hartuz). Sinatu al zizun?

MARIO: Bai, baina ez du balio.

COSME: Nola ez duela balio?

MARIO: (Cosmeri erakutsiz) Ezin diot hau neska bati erakutsi.

COSME: (Irakurriz) Hara, Mario, pozik egoteko modukoa da.

MARIO: Pozik? Argi asko esan nion, ba, Mario Jimenez. Zer esan nahi du "Adeitasunez, Pablo Neruda"? Eta hau ezabatzeko eta beste bat idazteko eskatzen badiot? Lagunak garela argi adierazten duen dedikatoria bat? Adibidez: "Mario Jimenez nire lagun bihotzekoari" eta gero sinatzea?

COSME: Ez zaitu ezagutzen, ordea! Zenbat aldiz joan zara korreoa ematera? Lau, bost aldiz?

MARIO: Bost.

COSME: Bihotzeko laguna!.

MARIO: Ia ahaztu nuen Koxme, atzo, bere etxera heldu nintzenean bera kanpoan zegoen, eguzkitan, lo.

COSME: Lo? Ez zenuen, ba, iratzarriko!

MARIO: Ez, ez, bere ondoan eseri nintzen.

COSME: Bere ondoan eseri zinela?

MARIO: Bai, noiz esnatuko zai geratu nintzen, korreoa emateko.

COSME: Eta zergatik ez zenuen ba, bere ondoan laga, edo atean?

MARIO: Zertarako? Ez nuen batere presarik. Gainera, gutunen artean bazitekeen dokumentu garrantzitsuren bat egotea, eta ezin nuen, ba, edonon botata utzi.

COSME: Beno, eta zer gertatu zen?

MARIO: Ezer ez, egonaren egonez, azkenean neu ere lokartu nintzela.

COSME: Lokartu zinela?!

MARIO: Bai, logalea neukan eta seko geratu nintzen.

COSME: Poetaren ondoan?

MARIO: Bai.

COSME: Eta bera? Ez zen konturatu? Mario, esaidazu, arren, ez zela konturatu.

MARIO: Beno, baietz uste dut, konturatu egin zela uste dut.

COSME: Uste duzula? Ez zaude zihur?

MARIO: Bai, beno, nahiko zihur nago, esnatu nintzenerako Don Pablo ez zegoelako jada nere ondoan eta nik manta bat nuen gainean. Eguzkia izkutatua zen eta nahiko giro freskoa zegoen. Orduan Don Pablo etxetik atera zen, katilu bete kafe zekarrela.

COSME: Eta zer esan zizun?

MARIO: Esan zidan: "Tori, on egingo dizu. Denbora luzea daramazu lo."

COSME: Zenbat da denbora luzea?

MARIO: Ia ordubete egon nintzen.

COSME: Eta... milesker esango zenion... Barkamenik eskatu...

MARIO: Bai, eta kafea azken tantaraino edan nuen, nahiz eta batere gustatu ez. Gutunak berak hartuak zituela esan zidan, ezin izan zuela itxaron. Gero joan egin nintzen.(...) Gizon jatorra da.

COSME: Zalantzarik gabe jatorra behar du zu aguantatzeko! (Etena). Tori, Mario, Don Pablorentzako gutunak. Eta tori giltzak ere; itzultzen zarenerako ez naiz egongo.

MARIO: Nora zoaz, nagusi? (Bitartean gutunei begiradatxo bat botatzen ari da).

COSME: Langileen bilera dugu Presidentziarako hauteskundeei buruz hitz egiteko, gainean daude ta. (CUT sindikatuaren asanblada antolatzeke bilera dugu) Etorri nahi duzu?

MARIO: Nor, ni? Joan al ninteke?

COSME: Jakina, Mario, jakina... Mundu guztia da ongi etorria. Bueno, mundu guztia.....

MARIO: Ez dakit ba... Botoa emateko aukera dudan lehen aldia da. Aurrekoetan aste batzuringatik geratu nintzen kanpoan.

COSME: Eta nori eman behar zenion botoa, ahal izanez gero?

MARIO: Ez dakit, Allenderi?

COSME: Beno, bada, aurten egiteko aukera duzu, eta oraingoan irabazi egingo dugu.

MARIO: Begira, Koxme, gaur ere denak amkumezkoak! (Gutunei buruz). Maria Conchita, emakumea; Anjela, emakumea; Jean Marie... Jean Marie zer da, gizona ala emakumea?

COSME: Ea ze letra duen... Emakumea.

MARIO: Banekien, zer bestela? Eta hau ere.

COSME: Emakumeei ere ajola zaie politika.

MARIO: Badakit, baina kontua da denak direla emakumeak. Jaso dituen gutun guztien artean, bakarren bat izan da gizon batena. Poesiagatik da. Emakumeak txoratzen dira poesiarekin. Beno Koxme, don Pblori gutunak eramatera noa!

COSME: Mario...

MARIO: Bai?

COSME: Mario, txanoa.

Mariok txanoa jarri eta joaten hasten da.

MARIO: Sozialistek irabazten badute, ez dugu txanorik eraman beharko?

COSME: Mario...

Irtetzera doan unean Beatriz sarzten da. Mario erreakzionatu ezinik geratzen da. Beatriz Marioren ondotik pasa eta mostradorera doa.

BEATRIZ: Egun on. Gutun hauek bidali nahi ditut.

COSME: Ondo da, emaizkidazu. Zelan doa ostatuarena?

BEATRIZ: Oso ondo, mila esker. Orain nahiko eroso gabiltz. Hasieran kostatu zitzaigun ohitzea, espero genuena baino gogorragoa izan zen.

COSME: Niri ez zitzaidan hala iruditu. Ireki zenuten egunean egon nintzen eta ondo moldatzen zinetela ematen zuen.

BEATRIZ... Ez zinen denbora luzez egongo, egun horretan bi baso apurtu nituen eta.

COSME: (Barrez) Hori normala da. Jendeak ulertu egiten ditu horrelako gauzak. Ziur inor ez zela haserretu, ezta zure ama ere, ezta?

BEATRIZ: Nola haserretuko zen, ba, ama! Berari hiru baso apurtu zitzaizkion. Barrez lehertu ginen gauean, kontaketa egin genuenean. Inoiz beste basorik ez apurtzeko hitza eman genuen, eta gaur arte, behintzat, bete dugu agindutakoa.

COSME: Hori ondo dago. Azkar ikasten ari zaretela ageri da.

BEATRIZ: Nire amari esker, batik bat. Dena dauka buruan; erosi behar dena, kontuak... Nigatik balitz, ez dakit non egongo ginen orain. Kontuetarako desastre hutsa naiz. (Joaten hasten da)

COSME: Egon une batez. Ez duzu igorlearen inena jarri behar?

BEATRIZ: Igorlearen izena?

COSME: Gutunak bidaltzen dituenaren izena.

BEATRIZ: Ah, nire amarenak dira.

COSME: Ondo da, zure amak ez badu ipini, hola utziko dugu. Ados?

BEATRIZ: Beno, nahi baduzu, neuk ipiniko dut, ahaztu egingo zitzaion. (Mariori). Boligrafoa utziko? (Mario ez da erantzuteko gauza).

MARIO: E?

COSME: Tori.

BEATRIZ: (Idazten du) Ondo dago horrela?

COSME: Ederto.

BEATRIZ: Beno, ba... Gu ostatuan egongo gara, nahi duzuerako....

COSME: Handik pasako gara, bai. Basoak jada seguru daudenez,...

BEATRIZ: Gero arte.

Beatriz badoa. Marioren ondotik pasatzen da. Gixajoak tenteldurik begiratzen dio. Azkeneko unean txanoa kentzen du, ozta ozta.

COSME: Mutiko, fantasma bat ikusi duzula dirudi.

MARIO: Nor da?

COSME: Ostatuko jabe berriaren alaba.

MARIO: Jabe berria?

COSME: Bai, arestian alargundu den andrea da, ez dakit bere izena. Ah, hemen dago idatzita. Rosa. Amak Rosa du izena. Senarra Domingo Gonzalez zuen. Gizon prestua, demokristianoa, baina gizon prestua. Aspaldian ferreteria bat gobernatu zuen eta beti uzten zigun dendan gure kartelak ipintzea.

(Mario laino batean bezala irteten da).

COSME: Nora zoaz?

MARIO: Ostatura.

IV

Nerudaren etxeko kanpoaldea. Mario heltzen da harrapaladan. Biziketaren txirrina jotzen du behin eta berriro.

MARIO: Don Pablo! Don Pablo!

Neruda irteten da.

MARIO: Zurekin hitz egin beharra daukat, Don Pablo.

PABLO: Garrantzi handiko kontua da, antza. Arnas estuka zatoz.

MARIO: Don Pablo, maiteminduta nago!

PABLO: Beno, ez da gauza larria. Horrek konponbidea dauka.

MARIO: Konponbidea? Ez dut konponbiderik nahi! Maiteminduta nago, Don Pablo!

PABLO: Noren kontra?

MARIO: Don Pablo?

PABLO: Neska nor den, gizona!

MARIO: Ostatuko jabe berriaren alaba. Beatriz du izena.

PABLO: Hara, Dante!

MARIO: Don Pablo?

PABLO: Poeta bat izan zen, behin, Beatriz batekin maitemindu zena. Dante zuen izena. Beatriz guztiek maitasun eroa eragiten dute. Zertan zabiltz?

MARIO:(Boligrafo batez eskuan idatzi nahi du). Poeta horren izena idazten ari naiz; Dante.

PABLO: Dante Alighieri.

MARIO: Ali...?

PABLO: Utzidazu, neuk idatziko dizut. (Idatzi egiten du eta bide batez Mariok ere korreoa ematen dio, korreoren artean telegrama bat).

MARIO: Maiteminduta nago, Don Pablo.

PABLO: Hori esana duzu.

MARIO: Lagundu behar didazu!

PABLO: Zaharregia naiz horretarako.

MARIO: Lagundu behar didazu, ez dakit zer esan behar diodan. Nere aurrean ikusi eta mingaina korapilatzen zait. Ez zait hitz bat bera ere irteten!

PABLO: Ez duzu berarekin hitz egin?

MARIO: Ia ezer ez. Aurrena bulegoan ikusi dut. Bere amaren gutun batzu uztera sartu da. Ordurako maiteminduta nengoela uste dut, baina ez diot ezer esan. Geroago ostatura joan naiz, haren atzetik, eta beno, baso erdi bat eskatu eta berak serbitzatu dit.

PABLO: Beatrizek.

MARIO: Bai, Beatrizek. Berari begira geratu naiz eta ordurako garbi zegoen erabat maiteminduta nengoela.

PABLO: Hara, hain azkar?

MARIO: Ez, hain azkar ez. Hamar minutu edo geratu naiz begira.

PABLO: Eta hura?

MARIO: Berak esan dit: "Zeri begira hago, mozolo?"

PABLO: Eta zuk?

MARIO: Ez zait ezer bururatu.

PABLO: Ezer ere ez? Ez diozu hitzik egin?

MARIO: Tira, ezer ez, ezer ez... Bost hitz egin dizkiot.

PABLO: Zeintzuk?

MARIO: "Nola duzu izena?"

PABLO: Eta hark?

MARIO: Esan dit: "Beatriz Gonzalez".

PABLO: (Etena). Zuk galdetu diozu "Nola duzu izena"?. Beno, guztira hiru hitz dira. Eta beste biak?

MARIO: Beatriz Gonzalez.

PABLO: Beatriz Gonzalez?

MARIO: Hark "Beatriz Gonzalez" erantzun dit eta orduan nik errepikatu egin dut: "Beatriz Gonzalez".

PABLO: Seme, premiazko telegrama bat ekarri didazu eta neska horri buruz hizketan jarraitzen badugu, berria eskuetan ustelduko zait.

MARIO: Barkatu, Don Pablo.

PABLO: Zuk, postaria zarenez, jakin beharko zenuke korrespondentzia pribatua dela.

MARIO: Don Pablo, sekula ez dizut gutunik ireki!

PABLO: Ez naiz horretaz ari. Nere gutunak lasai irakurtzeko eskubidea dudala esan nahi dut.

MARIO: Ulertzen dut, Don Pablo.

PABLO: Pozten naiz.

MARIO: Gero arte, Don Pablo.

PABLO: Gero arte, Mario. (Eskupekoa ematera doa). Tori.

MARIO: Don Pablo, molestia handirik ez balitz, hararentzako poema bat idaztea nahiko nuke...

PABLO: Mario, ezagutu ere ez dut egiten eta! Poeta batek inspiratzeko pertsona ezagutu behar du. Ezin da hutsetik ezer asmatu.

MARIO: Begira, poeta, poema ziztrin batengatik hainbeste koplarekin ibiltzen bazara, ez duzu sekula Nobel Saria irabaziko. Zeu zara lagundu ahal didan bakarra. Hemen denak arrantzaleak dira eta ez dakite tutik ere esaten.

PABLO: Baina arrantzale horiek ere maitemindu ziren, eta nobiari zerbait esaten asmatuko zuten.

MARIO: Artaburuak, horixe besterik ez dira. Ez dakite...

PABLO: Baina neskak gor-teiatu eta ezkontzeko moldatu ziren. Zure aita, zer da?

MARIO: Arrantzalea.

PABLO: Horra hor. Noiz edo noiz zure amarekin hitz egingo zuen, berarekin eskonduko bazen.

MARIO: Baina horrek ez du balio, Don Pablo. Nire ama, jaingoikoak gorde dezala, ez da inoiz Beatriz bezain polita izan.

PABLO: (Etena). Mario maitea, telegrama hau irakurtzeko irrikitan nago. Zure baimenaz...

MARIO: Zure etxean zaude, Don Pablo.

PABLO: Eskerrik asko. (Irekitzen du) Ea ba...

MARIO: Ez da Sueziakoa, ezta?

PABLO: (Berean). Ez, ez.

MARIO: Nobel saria emango dizutela uste al duzu?

PABLO: Horretaz ez kezkatzea erabaki dut. Nahiko erreta nago nire izena urteroko zerrendetan ikusteaz, lasterketako zaldia banintz bezala.

MARIO: Norena da telegrama, beraz?

PABLO: Alderdi Komunistaren Batzorde Nagusiarena. (Etena). Ene jainkoa!

MARIO: Berri txarrak?

PABLO: Ezin txarragoak! Errepublikarako hautagaia izatea eskeini didate.

MARIO: Txileko Errepublikako Presidentea. Baina, Don Pablo, hori itzela da!

PABLO: Itzela da hautagaia izendatua izatea, baina, hautatuko banindute?

MARIO: Horixe hautatuko zaituztena! Hemen mundu guztiak ezagutzen zaitu. Nere aitaren etxean liburu bakarra dago eta hura zurea da.

PABLO: Eta horrek zer frogatzen du?

MARIO: Nola zer frogatzen duen? Ba nire aitak, idazten eta irakurtzen ez dakienak, zure liburu bat baldin badu, horrek esan nahi du irabazi egingo dugula.

PABLO: Dugula? San Antonion denak sozialistak zinetela uste nuen nik, ba...

MARIO: Nik zuri emango dizut botoa, Don Pablo.

PABLO: Milesker zure laguntzagatik. (Etena). Beno, Mario, ulertuko duzunez, orain Alderdiarekin harremanetan jarri beharra daukat, beraz utzi egin behar zaitut.

MARIO: Jakina, Don Pablo.

PABLO: Eta Beatriz horrentzako poemari dagokionez, ezer baino lehen ostatura joan beharko genuke zorioneko andragaia ezagutzera.

MARIO: Don Pablo, txantxetan ari al zara?

PABLO: Benetan ari naiz.

MARIO: Harri-harri geratuko litzateke biok elkarrekin ikusita. Pablo Neruda eta Mario Jimenez elkarrekin ostatuan! Sustoak jota hilko da!

PABLO: Hori tamalgarria litzateke. Poema baten ordez epitafio bat idatzi beharko genioke.

MARIO: (Etena). Don Pablo, Beatrizekin eskontzen naizenean, ezteietan aitabitxi izan nahiko zenuke?

PABLO: Mario, hobe dut aspirinazko beste tortila bat prestatu, hauzi biak erabakitzeke.

MARIO: Hauzi biak?

PABLO: Errepublikako presidentzia eta Beatriz Gonzalez. Dena den, zuk, zeure aldetik, metaforak asmatzeko ahalegina egin beharko zenuke. Ez duzu, ba, pentsatuko, Beatriz maiteminduko duzula bere izena behin eta berriro errepikatuz? Ez zaizu iruditzen?

MARIO: E, jakina...

PABLO: Ondo da, bihar arte.

MARIO: Don Pablo?

PABLO: Mario?

MARIO: Metaforak?

PABLO: Bai, Mario, bai! Metaforak!

Off. Neruda presidentziarako hautagaia.



VII

Ostatua. Rosa (Beatrizen ama) mostradorearen atzean dago. Beatriz sartzen da (aretoaren barrukaldetik)

ROSA: Non egon zinen bart?

BEATRIZ: Pasiatzera irten nintzen.

ROSA: Nora?

BEATRIZ: Hortik zehar.

ROSA: Garbiago hitz egin, alaba. Zure postari horrekin egon zinen, ezta?

BEATRIZ: Mario du izena, eta Pablo Nerudaren laguna da.

ROSA: Pablo Nerudaren laguna. Berak esan dizu?

BEATRIZ: Elkarrekin egon ziren tabernan, lagunak zirela nabari zen, denbora guztian hitzegiten aritu zirelako.

ROSA: Eta postaria zuri begirik kendu gabe, ezta? (Etena). Ondo, eta zer esan zizun?

BEATRIZ: Ez zidan ezer esan.

ROSA: Atzokoaz ari naiz. Zer esan zizun bart?

BEATRIZ: (Etena). Metaforak.

ROSA: Mataforak? Sekula entzun dizudan hitzik luzeena da. Eta zer metafora esan zizun?

BEATRIZ: Esan zidan... nire barrea tximeleta baten moduan zabaltzen dela nire musuan.

ROSA: Eta zer gehiago?

BEATRIZ: Beno, hori esan zuenean nik barre egin nuen.

ROSA: Eta orduan?

BEATRIZ: Orduan nire barrea larrosa baten modukoa zela esan zuen, garauetan aletzen den lantza bat, eztanda egiten duen ura. Nire barrea zilarrezko bapateko olatua zela.

ROSA: Eta zuk zer egin zenuen?

BEATRIZ: Geldirik geratu nintzen.

ROSA: Eta berak?

BEATRIZ: Zer gehiago esan zidan?

ROSA: Ez, neskato! Zer gehiago egin zizun! Zure postari horrek, ahoaz aparte, eskuak ere omen dituelako!

BEATRIZ: Ez ninduen ikutu ere egin. Nire ondoan zoriontsua zela esan zuen, ozeano zuri baten ertzean egotea bezalakoa zela.

ROSA: Eta zuk?

BEATRIZ: Ni mutu geratu nintzen.

ROSA: Eta berak, zer?

BEATRIZ: Berak esan zidan gustora zegoela ixilik nengoenean, beste tokian banengo bezala zelako. Gero begiei begira geratu zitzaidan. Eta gero ileari, aldi luze batez, ezer esan gabe, pentsatzen arituko balitz bezala. Eta orduan esan zidan: "denbora falta zait zure ileak ospatzeko, banan bana behar ditut kontatu eta laudatu"

ROSA: Nahikoa dugu! Berbarekin laztantzen hasten diren gizonak, gero urrunago iristen dira eskuekin.

BEATRIZ: Eta ze kalte egin dezakete hitzek?

ROSA: Ez dago hitzak baino gauza okerragaorik, alaba! Hobe tabernako mozkor batek ipurdian zirri egitea, lotsagabe batek zure irribarrea tximeleta batek baino gorago egan egiten duela esatea baino.

BEATRIZ: Tximeleta baten moduan zabaltzen dela.

ROSA: Bost ajola niri egan egin edo zabaltzen bada! Eta badakizu zergatik? Hitzen ostean ez dagoelako ezeRosa: Gainera, nork esaten dizu guzti hori ez diola Neruda horri kopiatu?

BEATRIZ: Ez, ama. Berak begiratu eta hitzak irteten zitzaizkion ahotik txoriak bezala.

Elkarrizketa entzuten den bitartean, kaletik, hurbiltzen ari den kotxe baten megafonia hotsa entzuten da. "Marxismoa geldiaraziko dugu Txileko hautagaiarekin: Jorge Alessandri. Gobernatzeko esperientzia duen gizona: Jorge Alessandri."

ROSA: "Ahotik txoriak bezala". Alaba, hau oso larria da. Karramarruak baino bustiago zaude. Postari horrek hatzamarraren puntaz ikutu eta ziplo eroriko zinateke.

BEATRIZ: Zintzoa da, bera.

ROSA: Zintzoa. Oheratzeko kontuan berdin da poeta, errege nahiz komunista.

Labbe diputadua sartzen da.

BEATRIZ: (Bere amari azkeneko honen etorrera jakin araziz) Ama.

ROSA: Gero jarraituko dugu.

LABBE: Egun on, Doña Rosa.

BEATRIZ: Diputadu jauna, ohore handia da guretzat.

LABBE: Zer, zelan doa negozioa?

BEATRIZ: Ondo, ezin gara kexatu.

LABBE: Pozten naiz, pozten naiz. Kaixo, Beatriz.

BEATRIZ: Egunon jauna.

LABBE: (Oso maitekor).Zer moduz zure lan berrian? Laguntzen diozu amari?

BEATRIZ: Bai. (Beatriz barrura sartzen da).

LABBE: Doña Rosa, alaba maitagarria duzu, baina jakina, horren ama xarmantarekin ez da harritzekoa.

ROSA: Oso atsegina zara. Baina, eseri, eseri, erosoago egongo zara ta.

LABBE: Ez daukat ia astirik. Foileto batzu ari gara banatzen. Barran uztea eskertuko nizuke, bezeroek irakurri ahal izateko, badakizu.

ROSA: Bai, jakina, nola ez! Badakizu nire botoa zuen aldekoa dela.

LABBE: Beste guztiek gauza bera egitea falta da orain.

ROSA: Hemen marxixta asko dago, Labbe jauna.

LABBE: Badakit. Baina hori aldatu beharra dago.

ROSA: Baina eseri, ardo gozo bat zerbitzatuko dizut.

LABBE: (Esertzen da). Mila esker, Doña Rosa.

Mario sartzen da. Zorroa darama aldean.

ROSA: (Lehor) Zer nahi duzu?

MARIO: Ezertxo ere ez!

LABBE: Ah, zu Mario zara, Jose Jimenezen semea, ez da hala? Mario, Isla Negrako postaria, Nerudaren postari pribatua. Zatoz, Mario, eseri nirekin. Zatoz, ez beldurrik izan.

Mario zalantzan dago baina azkenean amore ematen du.

LABBE: Doña Rosa, ekarriozu beste basoerdi bat. Ala freskagarri bat nahiago? Freskagarri bat, doña Rosa.

ROSA: Bai, Labbe jauna.

LABBE: (Mariori), Eseri, eseri zaitetz. Esertzeko esan dizut!! (Mario jezartzen da) Zer, beldurtuta?

MARIO: Ez.

LABBE: Badakizu nor naizen?

MARIO: Mundu guztiak daki.

LABBE: Mundu guztiak. Hori oso ondo dago. Ederki Mario. Poesiarekin zaletu zarela entzun dut. Pablo Nerudari konpetentzia egiten omen diozu. (Barre egiten du). (Baxu hitz eginez). Beatrizekin maitemindu zarela ere entzun dut. (Ozenki berriro). Baina ez kasurik egin jendearen esamesej, Mario. Jendea inbidiatsua da.

MARIO: Bai.

Rosa edariak ekarri ditu.

LABBE: Eskerrik asko Rosa anderea. Neruda poeta handia da. Agian poetarik handiena.

MARIO: Bai.

LABBE: Baina, egia esan, ez nuen Txileko Presidentzian ikusten. Zuk zer uste duzu?

MARIO: Zergatik diozu ez zenuela ikusten?

LABBE: Ez al zara ba enteratu? Ez duzu irratia entzun? Ezkerreko alderdiak batu eta Salvador Allende aurkeztu dute hautagai bakartzat.

MARIO: Eta Don Pablo?

LABBE: Ez dakit. Bere liburuetara itzuliko dela suposatzen dut. Denontzat hobe. Poesia eta Politika ez datoz bat, Mario. Poesiak kalte egingo lioke politikari, eta politikak beti izorratzen du poesia. Kontutan hartu. Beno, Mario, berandu egin zait. (Bere basoa edan eta altxatzen da). Onartuidazu hau. (Boligrafo bat). Opari bat da, zure poemak idazteko. Ea, hartu.

MARIO: (Hartzen du). Eskerrik asko, Labbe Jauna.

LABBE: Doña Rosa.

ROSA: Ez, ez mesedez, konbidatuta zaude.

LABBE: Doña Rosa, ez baduzu nire dirua onartzen ez naiz berriro bueltatuko. (Ordaindu eta badoa).

ROSA: Eskerrik asko Labbe jauna. Gero arte. Mila esker zure bisitagatik.

Labbe desagertzen denean, Rosa Mario dagoen mahaira doa. Baso biak hartzen ditu, Mariok berea amaitu ez duen arren. Barrara eramaten ditu. Ixiltasuna.

MARIO: Oso polita da lokal hau.

ROSA: Ez dizut iritzia galdetu.

MARIO: (Berriz ekiten dio). Korrespondentzia mordoa batu zaio Nerudari, Pablori. Nik aldean eramaten dut, ez galtzeko. Liburu batzu ere daramatzat, berak erregalatutakoak, Pablok. (Ez dago zereginik). Beno, hobe izango dut joatea, joan beharra daukat!

ROSA: Bai, hobe duzu.

MARIO: Agur!

ROSA: Boligrafoa ahaztu zaizu!

MARIO: E?

ROSA: Boligrafoa ahatu zaizula!

Mario mahaira itzultzen da. Ez daki hartu ala ez. Azkenean hartzen du. Badoa.



VIII

Posta bulegoa. Mario eta Beatriz sartzen dira. Estu ta larri dabilta, badakite ez luketeela egon beharko dauden tokian eta ez luketeela egin beharko egiteko irrikitan daudena. Beatriz poliki dabil bulegotik, kuxkuseatzen, objektu guztiak ikutzen. Mario begira dago. Beatrizek Marioren txanoa aurkitu eta ipintzen du. Barre egiten dute biek. Mostradore gainean uzten du. Mario atzetik hurbiltzen zaio. Beatrizen ilea laztantzen du.

MARIO: "Zure ahoaren gosez nago, zure bozarena, zure ilearena, eta kale kantoietatik noa, baraurik, ixilik, ez nau ogiak sostengatzen, egunsentiak erotzen nau, egunez zure oinen soinu likidoaren bila nabiLabbe:

Zure barre irristatuaren gosez nago
zure eskuena..."

Nerudaren poema ahazten zaio. Baina Beatriz ohartu gabe, papera ateratzea lortzen du eta irakurtzen jarraitzen du.

"... zure eskuena, ganbara ankerraren kolorekoak, zure azazkalen harri zurbilaren gosez nago, almendra ikutu gabeko zure azala jango nuke.

Zure edertasunean erretako trumoia jan nahi dut."

Beatrizek buelta erdia eman eta Marioren eskua musukatzen du. Honek papera ezkutatzea lortu du.

BEATRIZ: Jarraitu, Mario, ez gelditu. MARIOk inprobisatu beharra du.

MARIO: Zure eskuak jango nituzke, bi esku ikaragarri direlako! Eta zure begiak ere bai, bi begi ikaragarri direlako, hau eta hau, biak!

Mariok ez daki nola jarraitu. Beatrizi mun egiten dio. Telefono hotsa. Biak asaldatzen dira. Mariok ez daki zer egin, baina ixiltzen ez denez hartzea erabakitzen du.

MARIO: Esan? (Mario zurbil geratzen da). Hemen ez dago zure alaba, Doña Rosa. Badakit berandu dela, Doña Rosa. Ni? Ni... lanean nago. Baina...nik...zera ...doña...doña... (Eskegi egin du. Etena).

BEATRIZ: Hobe dut joatea.

MARIO: Egon apur batean. (Etena).

BEATRIZ: Nire ama eskupeta batekin azaltzeko gauza da. (Etena). Agur. (Etena).

MARIO: Agur. (Etena).

BEATRIZ: Agur.

Beatriz badoa. Mario bakarrik geratzen da. Txanoa hartu, laztandu, usaindu eta ipintzen du. Norbait datoRosa: Berak Beatriz dela uste du. Pozten da. Txanoa kentzen du. Cosme sartzen da, makila batez armaturik.

COSME: Mario! Zertan ari zara hemen hain berandu?

MARIO: Nik zera...kontua da, ba...eta zu? Zertara etorri zara zu?

COSME: Bulegoan norbait zebilela esan didate.

MARIO: Bai, beno, nire koadernoaren bila etorri naiz.

COSME: Zure koaderno? (Etena) .

MARIO: Beatrizekin etorri naiz, baina ez da ezer gertatu. Joan egin da jada. Barkatu. Lehenengo aldia izan da. Ez da berriro gertatuko.

COSME: Hara, sekulako beldurra pasa dut. Hasieran lapurrak zirelakoan da nengoen. Baina hona nentorrela bulegoa erretzeko asmoz etorritako faszista talde batekin topo egingo nukeela otu zait. Hauteskundeetarako astebete baino falta ez denez... (Etena).

MARIO: Etxera joatekotan nengoen.

COSME: Badakizu, Mario? Nik ere nobia bat izan nuen zure adinean, Dolores zuen izena.

MARIO: Eta zer gertatu zen?

COSME: Ezer ez. Santiagora joan eta soldadu batekin ezkondu zen.

MARIO: Lastima.

COSME: Orain lodia eta itsusia dela pentsatuz kontsolatzen naiz.

MARIO: Beatriz ez da inoiz itsusia izango. (Etena).

COSME: Mario, giltzak.

Mariok eman egiten dizkio. Badoaz.

OFF: Allendek hauteskundeak irabazten ditu.



IX

Nerudaren etxeko kanpoaldea. Neruda Txileko bandera altzatzten ari da, lehen urdina zegoen tokian. Oso pozik dago. Mario heltzen da, pozik bera ere.

MARIO: Irabazi dugu, Don Pablo, irabazi dugu!

Besarkatu egiten dira.

PABLO: Herri honetan arnasa hartzea dago, jada!

MARIO: Cosmek bere bizitzako unerik pozgarriena izan dela dio. (Etena). Nik nahiago nukeen zure alde botoa ematea.

PABLO: Allenderi botoa eman ez, niri eman didazu.

MARIO: Don Pablo, zera jakin nahiko nuke, zera... Zergatik erretiratu zinen, Don Pablo?

PABLO: Oso erreza da. Erretiratu izan ez banintz, honezkero Alessandri genuke presidente. Gure alderdiaren asmo bakarra ezkerren batasunarentzako hautagai bakarra lortzea zen, eta ageri denez, lortu egin dugu. (Etena). Baina ezin dizut ukatu, Mario maitea, une batean presidente izateko ideiarekin liluratu nintzela. Nire kandidaturak, ustekabeen, indar hartu zuen. Neu ere harritu nintzen. Nire mitinetara gero eta jende gehiago zetorren, gero eta emakume gehiago, Mario. Ez dut sekula ahaztuko mitinetara hurbiltzen zitzaizkidan gizon eta emakume horiek guztiak. Ez dut inoiz ahaztuko, minutu batez, behintzat, esperantzaren irudia izan nintzela eurentzat.

MARIO: Nolakoa da Allende, Don Pablo?

PABLO: Beno, ausarta eta nekaezina dela esango nuke. Eta sinistuidazu, kualitate bi horiek ezinbestekoak dira gure Errepublika kutun hau gobernatzeko; errepublika harro, menderaezin eta pobretu hau.

MARIO: Zergatik diozu hori?

PABLO: Kontuak hola daudelako, Mario. Allendek oso erronka zaila dauka, eta gainera barruko eta kanpoko etsaiak hortzak zorrozten hasiak dira edozein aldaketa galerazteko. (Etena) Dena den, pozik egoteko moduan gaude. Txilen biolentziarik gabeko iraultza nagusitu da; Txileko erara.

MARIO: Ni ere pozten naiz dena ondo irten delako, ze nik ere hasieran beldurra nuen, uste nuelako presidente hautatu ezker ez... ez zintudala berriro ikusiko, telebistan ez bazen. Pozten nau zu hemen berriz ikustek.

PABLO: Neu ere pozten naiz, Mario.

MARIO: Botila bat ekarri dut, ospatzeko.

PABLO: Ideia bikaina. Basoen bila noa. Banderaren azpian egingo dugu topa. NERUDA etxean sartzen da.

Labbe sartzen da.

LABBE: Egun on. Orain zihur nago hau Nerudaren etxea dela. Jakina, hemen dago eta haren postaria. Zer moduz Mario? Mario, kolore txarra daukazu, zurbil zaude, eta betilun. Zer duzu? Ah, maitasuna, maitasuna! Zeinen goxo eta kilikagarriak diren maite dugunari eskeintzen dizkiogun lorik gabeko ordu luzeak!

Neruda irteten da.

PABLO: Labbe diputadu jauna.

LABBE: Egun on, Don Pablo. Zorionak ematera etorri naiz. Demokraziaren legea hala da. Galtzen jakin behar da. Galtzaileak agur egiten dio irabazleari.

PABLO: Mila esker zure bisitagatik. Har zazu tragu bat gurekin.

LABBE: Ez, eskerrik asko, barkatu baina ardoak, goizean, kalte egiten dit. Beraz, hau da Pablo Nerudaren etxe ospetxua. Inspiratzeko leku aproposa. Zorte ona izan duzu, oso atsegina dirudi.

PABLO: Ados nago.

LABBE: (Banderagatik) Oso abertzalea zarela ikusten dut. Zera uste nuen, sorterritik, denbora luzez, urrun egon direnak, azkenean erlatibizatu egiten dutela sorterrirako maitasuna, batez ere zu bezala India, Espainia edo Sobiet Batasuna bezalako tokietan bizi izan direnak.

PABLO: Bidaiari estatikoa izan naiz beti. Ez naiz sekula Txiletik joan.

LABBE: Pozten nau hori entzuteak. Beno, orain banoa. Ez dizuet enbarazorik egin nahi.

Nerudari eskua ematen dio.

PABLO: Etorri nahi duzunean.

LABBE: Etorriko naiz, mila esker. Zure ustez, zenbat denbora iraungo du Allendek boterean, Don Pablo?

PABLO: Ez dakit, esaidazu zeuk.

LABBE: Urtebetetik ez dela pasako egingo nuke. Baina agian oker nabil.

PABLO: Urtebetean gauza asko egin daitezke.

LABBE: Egia, egia. Jaunak.

PABLO: Labbe jauna.

Labbe badoa.

PABLO: Labbek gogorik ez badu ere, guk ez dugu zertan ez edan, ez duzu uste, Mario?

MARIO: (Irribarrez) Jakina, jakina.

PABLO: Viva Txile, Mario!

MARIO: Viva Txile, don Pablo! (Edan egiten dute)

PABLO: Beno, eta orain Santiagotik ekarritako opari berezi berezi bat erakusteko une aproposa da. Postarien himno ofiziala da.

Etxera sartzen da. Beatlesen "Wait a minute , Mr Postman" entzuten da. Neruda irten eta dantzan hasten da. Pixkanaka pixkanaka Mariok bere lotsa gainditu eta dantzan hasten da bera ere. Norbait hurbiltzen ari dela nabaritzean Mario gelditu egiten da. Larritu egiten da. Nerudari esan eta etxean izkututzen da. Doña Rosa iristen da. Musika isildu egiten da.

ROSA: Egun on, Don Pablo.

PABLO: Zure esanetara, andrea.

ROSA: Rosa nauzu, Gonzalezen alarguna, San Antonioko ostatuko jabea. Ezer baino lehen argi utzi nahi dizut demokristianoa naizela, ez diodala Allenderi botoa eman eta ez nizula zuri ere emango. Zurekin Txiletar eta ama naizen aldetik hitz egin nahi dut, Mario Jimenez delako bati buruz.

PABLO: Oso ondo, doña Rosa, zer moduz hementxe bertan hitzegiten badugu? Giro ederra dago.

ROSA: Ondo dago.

PABLO: Eseri nahi duzu?

ROSA: Esan behar dudana larriegia da, eserita esateko.

PABLO: Zer da ba?

ROSA: Aste batzuk dira Mario Jimenez hori nire ostatuaren inguruan dabilela. Morroi hori nire alabarekin ausartu da. Alabak hamazazpi urte besterik ez du.

PABLO: Zer esan dio?

ROSA: Metaforak.(Etena).

PABLO: Eta?

ROSA: Bada, metafora horiek, Don Pablo, nere alaba estufa bat baino beroago jarri dutela. Postari horrek, oinetako behatzen arteko pelotillak beste ondasunik ez duenak, erabat suntsitu

du nere Beatriz gaixoa. Baina oinak ustelduta baditu ere, ahoa berriz, letxuga bat baino freskoagoa. Eta larriena, Don Pablo, zera da, nere alaba liluratzeko erabiltzen dituen metaforak zuri kopiatu dizkizula.

PABLO: Ez!

ROSA: Entzun duzun bezala. Tximeletaren irribarrearekin hasi zen. Baina laster zion ba esan bere bularrak sumendiak zirela?

PABLO: Eta erabilitako irudia, zure ustez zer zen, ikusmenezkoa ala ukimenezkoa?

ROSA: Ukimenezkoa. Nire alabari etxetik irtetea galarazi diot Jimenez hori baretu arte, gauzak gehiagi okertu baino lehen. Gogorra irudituko zaizu nere erabakia, baina begira, begira zera aurkitu nuen alabaren bularretan ximurturik. Tori. Irakurri. (Papera ematen dio).

PABLO: "Biluzik, zure eskuetako bat bezain laino zara,

lehun, lurtar, xoil, borobil, gardena,

ilargiren lerroak dituzu, sagarren bideak,

biluzik gari biluztua bezain mehea zara.

Biluzik urdina zara, Kubako zeruaren antzera,

adatsean huntsak dituzu eta izarrak

biluzik handia zara, eta horia, uda zara urrezko eliza batean.

Biluzik zure azazkal bat bezain tikia zara

borobil, leun, arrosa; egunsentian

munduaren lurazpian gordetzen zaren arte...

Rosak poema kentzen dio.

ROSA: Mario horri nire alaba pakean uzteko exijitzea erregutzen dizut. Zuri jaramon egingo dizu. Eta pakean uzten ez badu, esaiozu nik neuk begiak atera eta itxasora botako ditudala! Ez dakukat esateko besterik.

PABLO: Mandatua beteko dudala agintzen dizut, Doña Rosa.

ROSA: Milesker bada. (Joatekotan dago).

PABLO: Baina beranduegi ote den susmoa daukat.

ROSA: Zer esan nahi duzu?

PABLO: Beno... azkenaldi honetan Mario zurbil xamar ikusten dut eta...

ROSA: Eta?

PABLO: Poema hori...

ROSA: Zer esan nahi duzu?

PABLO: Beno... poema hori idazteko...

ROSA: Esan nahi duzu eurak dagoeneko...

PABLO: Beharbada oker nabil.

ROSA: Hori izugarria litzateke. Eta gainera... agian behin baino gehiagotan...!

PABLO: Batek daki!

ROSA: Jainko maitea! Ni izan naiz ba tuntuna! Lehenengo egunetik debekatu behar nion ba, irtetea! Ez dakit zer duten gaurko gazteek. Don Pablo, barkatu eragozpenak.

PABLO: Ez da eragozpenik batere egon, doña Rosa.

ROSA: Abiatu beharra daukat.

PABLO: Nahi duzu laguntzea?

ROSA: Ez, mila esker. Nahiago dut bakarrik joan.

PABLO: Ulertzen dut.

ROSA: Agur.

PABLO: Agur, doña Rosa.

Rosa badoa. Mario irteten da.

PABLO: Arrazoi nuen, irina zaku bat baino zurbilago zaude.

MARIO: Zu erabat jota zaude, Don Pablo.

PABLO: Lagundu besterik ez nuen nahi, Mario, eta lortu dudalakoan nago.

MARIO: Lagundu? Baina nik ez dut inoiz... esan nahi dut nik Beatrizekin ez dudala sekula...

PABLO: Nahikoa da berak hala pentsatzea. Eta utziozu kexatzeari; nigatik ezbalitz, aurki bastoi txuria eta txakur beltz batekin egongo zinen kartak banatzen.

MARIO: Eta zer izango da nitaz orain?

PABLO: Oraingoz itxaron egingo dugu. Ah, ahaztu baino lehen, nire liburu pare bat erregalatu dizkizut, baina horrek ez dizu plagiatzeko eskubiderik ematen. Matilderi idatzi nion poema eskeini diozu Beatrizi.


MARIO: Poesia ez da idazten duenarena, erabiltzen duenarena baizik.

PABLO: Pozten nau horren esaldi demokratikoa entzuteak, seme. Baina ez dezagun demokrazia urrunegi eraman, bestela familia barruan nor den aita eta nor den semea ere botoen bidez erabaki beharko dugu egunen batean. (Etena). Eta orain, edan dezagun ekarri duzun ardo hori.

MARIO: Viva Txile don Pablo!

PABLO: Viva Txile eta viva Beatriz, Mario!

Etxe barrura sartzen dira.



X

Ostatua. Gauetz. Kanpoaldetik itzaltzen ari den festa baten burrundaia iristen zaigu. Komuneko bonbaren hotsa entzuten da. Cosme irteten da, kremlera ixten ari dela. Polito edanda dago. Barrara doa, bere koparen bila. Edatarea doanean, kopa hutsik dagoela konturatzen da.

COSME: (Barraren gainean dagoen birginari) Hara, tantarik ez. Ez al du, ba, berorrek edan? Berori ez du holakorik egiten, ezta? (Kanpora doa, baina gelditu eta atzera egiten du) A, birgina anderea! Berori birgina delako, dudarik gabe. "Birgina Zurbila" deitzeko itxura du berorrek. (Etena). Zera eskatu nahiko nioke... molestia handirik ez bada, alegia... ba egun pozgarri honetan, ba... ezerrez... Badakit Dolores ez dela itzuliko... baina behintzat, lantzean behin, bera nirekin gogoratzea nahiko nuke, ni berarekin gogoratzen naizen era berean... Ni gogoratzen naizenaren erdia gogoratzearekin nahikoa dut... Herenarekin ere konformatzen naiz. Zoriontsua izan dadila, soldadu horrek ondo trata dezala, berak merezi duen moduan. (Badoa baina ostera ere itzultzen da) Beno, eta niri erregalitzo bat eroriko balitzait... Dolores bezain polita ez bada ere. Ez naiz oso estua, zera normal batekin konformatzen naiz...

Beatriz sartzen da, nobiaz jantzirik.

BEATRIZ: Zertan zabiltz, Don Cosme? Noiztik ajola zaizu, baDA, erlijioa?

COSME: E? O, ez, ez... zera, orain arte ez naiz irudi horretan erreparatu, eta beno, badakit artea baloratzen. Ah! Beatriz, herrian sekula egon den andregairik politena.

BEATRIZ: Ez zaitetz esajeratua izan, Don Cosme. (Barrara doa).

COSME: Bene benetan ari naiz, neskato. Mariok sekulako pagotsa du. Oso bikote ederra osatzen duzue, bai jauna. Zu liluragarria zara eta Mario... nola esango nizuke... ez da asko ikasitako jauntxo horietako bat, badakit... baina... oso sana da, zintzoa... nola esango nizuke... herrikoa. Mutil jatorra.

BEATRIZ: Hala da, bai.

COSME: Horixe ba!

BEATRIZ: Edateko zerbait aterako dut. Koparik nahi?

COSME: Gustora asko, gainera. Nahi duzu laguntzea?

BEATRIZ: Ez da beharrezkoa. Neuk aterako ditut.

COSME: Ederto. Mario eta zu oso zoriontsuak izango zarete, zihur naiz. Horixe baietz. Lehenengo egunean bertan konturatu nintzen bata bestearentzat eginak zeundetela.

BEATRIZ: Eta nola jakin zenuen?

COSME: Nola jakin nuen? Beno, ni bezalako agure batek gauza hauetaz ulertzen du.

BEATRIZ: Zu ez zara agurea, Don Cosme.

COSME: Mila esker, horixe entzun behar nuen. Ea, festara noa osterera ere.

BEATRIZ: Orain arte. Ondo pasatzen ari al zara?

COSME: Neskato, aspaldi aspalditik ez nuen hain ondo pasatzen. Hauteskunde eguna kenduta, jakina.

BEATRIZ: (Barre eginez) Jakina.

Cosme badoa. Beatrizek bandeja batean kopa batzu ipintzen ditu. Rosa sartzen da, oso dotore jantzita. Neka neka eginda dago.

ROSA: Niri buruatu behar, ba, gaur zapata berriak estreinatzea! Inork ez al du etxera joateko asmorik?

Eseri eta zapatak kentzen ditu.

BEATRIZ: Ez dira asko geratzen.

ROSA: San Antonio guztia esna mantentzeko adina bai. Ez nuen uste horren berandu joko zuenik. Musika kendu beharko genuke.

BEATRIZ: Bolumena jeitsi dugu, ez du jada molestutzen. Gainera Cosme zurekin dantzatzeko irrikitan dago.

ROSA: Horixe besterik ez zitzaidan falta. Zatoz hona, Beatriz. (Beatriz hurbiltzen zaio).

ROSA: Utzidazu begirutzen. Egun osoan handik hona ibili naiz, mundu guztia gustora egon zedin, eta ez dizut zuri ia begirik jarri. Hau da hau!

BEATRIZ: Ba nik ondo erreparatu dizut. Oso polita zaude. Denetan dotoreena.

ROSA: Benetan? Ez dakit nola moldatu zaren hain lasai egoteko, neska. Zure aitarekin ezkondu nintzenean.... baso bete ur baino ez nuen hartzerik izan. Irribarrea fortzatuz eman nuen egun osoa... Ondorengo hiru egunetan aurpegiko minez egon nintzen. Aste bi pasatu izan balira bezela gogoratzen naiz. Eta begira, hogeita bi urte pasa dira.

BEATRIZ: Dena ondo irtengo da, ikusiko duzu.

ROSA: Hain gaztea zara.. (Etena).

BEATRIZ: Zergatik ez zoaz ohera, ama? Moldatu egingo gara.

ROSA: Zure aitak beti esaten zuen etxe batek gizon bat behar duela. Baina gu ederto konpondu gara biok bakarrik, ezta?

BEATRIZ: (Etena). Bai, ama, bai.

Mario senargaia eta Cosme sartzen dira. Barran uzten dituzten baso eta katilu erabiliak dakartzate. Mario barran dauden kopak betetzen ditu. Cosmek bat hartzen du.

MARIO: Ez dut ia egun osoan don Pablarekin hitz egiterik izan. Ez diote pakean uzten. Orain Don Justo ari da; San Antonioko historia oso osorik kontatu nahi ez dio, ba! Zer gertatzen da?

BEATRIZ: Ezer ez, nekatuta gaude.

Mariok kopa bana ematen die.

ROSA: Mila esker, Jimenez jauna. A ze goxoa den bezero izatea. On egingo dizu praktikatzen hastea, azkarrago ikasiko duzu.

COSME: Aizu, Mario, eta zure aita zergatik joan da, ba, hain goiz?

MARIO: Arrantzan irten behar zuen.

COSME: Lanbide gogorra, bai jauna. Nere partetik, berriz, bi astebeteko oporraldia duzu; eta bileretara joatetik ere libre utziko zaitudala uste dut; lankide batek esaten zuenez, "ezin daiteke aldi berean txoria kaiolan eta burua aberrian eduki". Barkaidazu, doña Rosa.

ROSA: Ezin daiteke burua txoriz josita eduki, eta aberria kaiola batean.

COSME: Korrosiboa zara, doña Rosa.

ROSA: Ama naiz, besterik ez, don Cosme.

COSME: Orain amaginarreba ere.

ROSA: Ez zait ahaztu.

COSME: Ah, doña Rosa, herrian sekula ikusi den amatxirik ederrena izan zara! Baina ez dizut barkatuko nirekin behin ere dantzatu ez izana.

ROSA: Oinetako mina nuen, sinistuidazu.

COSME: Hara, oraintxe bertan nirekin dantzatzeko eskatu behar nizun, ba.

ROSA: Eserita izan beharko du.

Denok egiten dute barre. Cosmek aulki bat hartu eta Rosaren ondoan esertzen da.

COSME: Ondo da, bada. Hasi gaitzen.

Barreak. Cosmek Rosaren kopaz jabetzen da.

COSME: Doña Rosa, Allendek kobrea nazionalizatzeko asmoa du, zer deritzozu?

ROSA: Ez dut uste ausartuko denik.

COSME: Don Pablori entzun diozu. Onartezina da Txileko ondasunik handiena Estatu Batuetako enpresa bakan batzuen artean partitzea.

ROSA: Eta zure ustez, amerikanoek kexarik gabe itzuliko dute, behin euren diruz ordaindu zutena?

MARIO:Prezio kaskarra ordaindu zuten.

BEATRIZ: Berriro politikaz aritzea bai dela kaskarra. Ea, denak kanpora, denak dantzara...

NERUDA sartzen da.

MARIO: Don Pablo.

PABLO: Agur esatera etorri naiz.

COSME: Bazoaz... hain goiz?

ROSA: Gauza bera egin beharko genuke denok.

MARIO: Don Pablo, azkena hartu behar duzu.

PABLO: Berandu da, Mario. Gainera bihar goiz jeiki beharko dut. MARIO:Larunbata da ta. Egizu jai.

PABLO: Ezinezkoa zait... Santiagora noa.

MARIO: Santiagora? (Etena).

PABLO: Allendek Parisen Enbaxadore izendatu nau. Mario, baliteke bolada batean ez itzultzea; bolada luze batean. Eta hala ez balitz ere, denbora luzeegia izango da zuengandik urrun, neure etxe eta Isla Negrako ondartzatik urrun.

Mario zurbil geratzen da.

COSME: (Tentsioa apurtu nahiean) Parisen enbaxadore! Hori, handia da, gero!

PABLO: Bihar Santiagora eta datorren astean Parisera abiatuko naiz.

ROSA: Txori aseak beste habia nahi.

COSME: Honek tragu bat merezi du, ezta?

ROSA: Negozioa porrot eginda utzi nahi didazu, don Cosme?

PABLO: Mario. (Hurbiltzen zaio). Mario, ez dizut lehenago esan... uste nuelako... Festa ederra izan da... Pozten nau zure ezkontzako aitabitxia izanak.

MARIO: Nire bizitzako egunik zoriontsuena izan da.

PABLO: Gogoan duzu Labbe jaunari esan niona? Bidaiari estatikoa nintzela?

MARIO: Bai, gogoan dut.

PABLO: Egia zen. Heme izango naiz beti, zuekin, itxasoaren ondoan. Nahiko banu ere, ezingo nuke nire lurra utzi, aldean daramat edonora; nire burukoa da, bera gabe ezingo nuke ohe arrotz batean lorik egin. Tori, Mario. Hauxe da nire agur oparia. Poeta eta lagun min batek eskuz idatzitako poemak dira. Aspaldian hil zen Espainian. Faszistek kartzelan sartu eta hilabete gutxira hil zen. Miguel Hernandez zuen izena. Poema zoragarriak idazten zituen artzaia zen. Zuk gordetzea nahi dut. Zaindu itzazu.

MARIO: Mila esker, don Pablo.

PABLO: Eta hau... (Grabadora bat ateratzen du). Hau grabagailu bat da. Mesede bat eskatu nahi dizut. Joan zaitetz honekin Isla Negrako bazterretatik eta jaso itzazu soinu eta zarata guztiak. Horien premia bizia izango dudalakoan nago. Bidali nere etxeko soinuak ere. Graba itzazu olatuak, itxasoa, kaioak, eta izarren ixiltasuna entzunez gero, grabazazu ere. Paris ederra da, baina oso handia geratzen zaidan soinekoa da.

MARIO: Orduan zergatik zoaz?

PABLO: Mario...

COSME: Mario, don Pablo da Txilek Europan izan zezakeen enbaxadorerik onena. ren itzala handituko da. Allende badaki zertan dabilen. Gainera, zu lehen ere han bizi izan zara, ezta?

PABLO: Hala da, bai. Mario, eskatutakoa egingo duzu?

MARIO: Jakina, don Pablo.

PABLO: Idatziko dizut. Lasai egon. Frantzian enbaxadore izatea gauza berria da, eta ez oso eroso niretzat. Baina erronka bat da. Mundu guztia dago hemen gertatzen denari so. Gogor lan egin beharko dut Txilen gertatzen ari diren eta gertatuko diren aldaketak azaltzeko. Oso harro beteko dut lan hori.

Nerudak denei agur esaten die.

PABLO: Doña Rosa.

ROSA: Don Pablo. (Musu ematen diote elkarri).

PABLO: Beatriz, San Antonioko gatz eta piperra. Ez negarrik egin, umea.

BEATRIZ: Ez nago negarrez. (Musu ematen diote elkarri).

PABLO: Konpañero, Cosme.

COSME: Kamarada, Don Pablo. Nahi baduzu lagunduko dizut.

PABLO: Mila esker.

COSME: Ziur naiz gure iraultza defendatzen jakingo duzula, Don Pablo. Mundu guztiak jakin behar du n sozialismoa bide demokratikotik nagusitu dela.

Irten baino lehen Mario besarkatzen du.

PABLO: Mario, laguna.

Neruda eta Cosme badoaz.

ROSA: Ederto hasi gara. Herri honetan postari bat sobera dago.

MARIO:Nola?

ROSA: Lanik gabe geratu zara, motel.



XI

Mario Nerudaren etxera sartzen da. Aspaldi utzia dagoela antzematen da. Altzairuak maindirez estalita daude. Mariok fardel bat darama. Eseri egiten da, Grabadorea atera eta grabatzen hasten da.

MARIO: Probatzen, probatzen, bat, bi, bat bi. (Ondo dagoela ziurtatzen du). Orain zure etxean nago, Don Pablo. Gauza bat ematera etorri naiz. Familia osoa agertzen den fotografia da, hondartzan, zu baino ez zara falta. Ez dauka garrantzi handirik, baina beno... Markoa ipini diogu. Hemen utziko dizut, bueltatzen zarenerako.

Gu ondo gabiltza. Ostatuan oporretako kanpamendu bat jarri da. Langileentzat da. Nik orain sukaldean egiten du lan, Beatrizek ezin du eta. Astean behin karta pare bat banatzen diet oporretan ari direnenei. Allendeek kobrea nazionalizatu zuen azkenean, arrazoi zenuen, Don Pablo.

Parisen zurekin egon nahiko nuke, don Pablo. Grabazioa bidali beharrean neuk emango nizuke, zer deritzozu? Hortik dena elurtuta egongo da, ezta? Nik sekula santan ez dut elur malutaxo bat ere ikusi. Zineman bai, jakina. Parisen zaudenetik Frantziari buruzko gauza asko irakurri dut. Orain badakit nortzu diren Danton, Robespierre, Belmondo... eta Brigitte Bardot; Eta Aznavour, Silvie Vartan eta Adanoren diskak erosi ditut. Dena gutunak banatzen lortzen dudak diruarekin erosi dut, ostatuan irabazten duguna Doña Rosak gobernatzen baitu, badakizu. Frantsesa ikasteko liburu bat ere lortu dut, ezagutuko duzu agian, Bonjour Paris du izena. Datorren astean bigarren kapitulora iristea espero dut.

(Etena). A, ahaztuta nengoen. Gaur goizean Santiagoko lehiaketa batera bidali dut poema bat. Zuretzat idazti nuen poema da, zure Odatan inspiraturik, eta izena du: "Oda Nerudaren gaineko elurrari, Parisen". Ez zitzaidan izenburu motzagarik bururatu. Cosmek makinaz pasatu zidan eta berak dioenez, itxuran behintzat ez dit inork irabaziko. Irabazleari 50.000 eskudo emango diote. (Etena). Irakurri egingo dizut.

Pausu ezkutuko lagun malgoa

zeruetako esne oparoa,

nire eskolako amantal garbia,
erretratu ximur batekin
ostatuz ostatu dabiltzan ibiltari ixilen maindirea, Dontzeila arin eta plurala,
milaka usoen hegoa,
ezezagunari agur egiten dion zapia.
Arren, ene ederra,
erori zaitetz goxo Pablo Nerudaren gainean Parisen,
jantzi zazu galaiz zure almirante jantzi zuriaz,
bihurtu zaitetz beluntzi garden
eta ekarriguzu portu honetaraino,
haren hutsuneak min egiten digu eta.

Beno, hau izan da poema. Bestaldean eskatutako soinu gehiago grabatu dizkizut.

Mariok aldea aldatu eta grabatutakoa entzuten du. Bitartean etxeko objektuak agerian uzten hasiko da.

Grabazioa:

"Bat: Haizea Isla Negrako kapai dorrean.

Bi: Kanpaiak Isla Negrako kanpai dorrean.

Hiru: Olatuak haitzartean.


Lau: Kaioen kanta. "Ea, ea, kanta ezazue poetarentzat!"

Bost: Erlauntzia.

Sei: Marea beheera.

Zazpi: Don Pablo Neftalí Jimenez Gonzalez. (Haurraren negarra).

Kanpoaldetik norbaitek harri bat jaurtitzen du. Lehio bateko kristala apurtzen du.



XII

Ostatua. Rosa lurra garbitzen ari da. Mario sartzen da.

ROSA: Nondik zatoz, jakiterik badago?

MARIO: ETalboraino joan behar izan dugu, kamioi bat deskargatzera. Piketeak edonon agertu omen daitezke.

ROSA: A. Hobe zenuke etxean laguntzea.

MARIO: Ez al dut, bada, laguntzen? Goiz osoa daramat lanean; hola jarritu ezker, greba madarikatu horrek huts egin eta dena bere onera itzuliko da. Eta orduan zuk ere eskertuko didazu, doña Rosa.

ROSA: Baliteke, baina hemen lurra oraindak zikin dago.

MARIO: Ez zegoen jaboirik.

ROSA: Horrek ez dizu eskobatzea galerazten. (Sukalderantz doa)

MARIO: Eta haurra? Non dago?

ROSA: Lo.

MARIO: Eta Beatriz?

ROSA: Erostera joan da. Beno, erostera.... Ez dakit zer erosiko duen, ez da ezer geratzen eta. Eta dena Allenderen buru gogorragatik.

MARIO: Ez da bere errua.

ROSA: (Idazki bat ematen dio). Tori, irakurri.

MARIO: Zer da?

ROSA: Egia da hori. Irakurri, ea.

MARIO: Non eman dizute hau?

ROSA: Plazan, Labbe jaunari entzuten egon naiz. Zeuri ere komeniko litzaizuke entzutea.

MARIO: Labbe jauna, Labbe jauna... Hauteskundeak aspaldi bukatu ziren!

ROSA: Eta zer nahi duzu, ba? Horrela beste lau urte jarraitzea?

MARIO: Horrelakoa da demokrazia. Gainera, badakaizu zergatik ari diren horrela? Parlamenturako hauteskundeak ere geuk irabaziko ditugula dakitelako.

ROSA: Bai...

Rosa sukaldera doa. Mariok abadagunea aprobeztatzen du grabatzen jarraitzeko.

MARIO: Entzun, Don Pablo. Gaur zera eduki dut buruan egun osoan: Nobel saria eman zizutenean herrian antolatu genuen festa. Ez dakit inoiz kontatu dizudan jatekoa nola lortu genuen: antxumea Domingo Guzmanek lortu zuen, harakin sozialista bati erosi zion, nahiko prezio zentzuzkoan. "Merkatu grisa", Cosmek esan zuenez. (Barre egiten du). Ikusi behar zenituen, Don Pablo. Ford 40.ean iritsi ziren, dena zinta eta ko plastikozko banderinez beterik. Aurrekaldean Cosme eta Domingo zetozen eta atzean antxumea eta Yamaha. Yamaha zera da, bateria bat, Domingok arratsalde osoan kupida gabe makilatzen egon zena. Eta ikusi behar zenuen Doña Rosak antxumea ikusi zuenean jarri zuen aurpegia! zure aurrean belaunikatzen zela esan zuen, Don Pablo, baina hala ere, kazerola gogor astintzen jarraituko zuela komunistak gobernutik irten arte. Politikari baino poeta hobek zaretela esan zuen. (...) Zure hitzaldia grabatu nuela esan nizula uste dut, oso ondo grabatu zen, nahiz eta telebistaren aurrean 80 pertsona baino gehiago egon, zeuk hitz egin zenuenean inork ez bait zuen tintik ere esan. Oso polita izan zen zera esan zenuenean: "pazientzia sutua beharko dugu gizon guztiei argia, justizia eta duintasuna eskeiniko dion hiri emankorra erdiesteko. Lortu ezkerro, poesiaren kantua ez zen alferrikakoa izango". Denak txaloka hasi ziren. Hitzaldi liluragarria izan zen, poeta jauna. Oso dotote zeunden frakez jantzita.

Rosa itzultzen da kubo, fregona eta zapi batekin. Mariok grabazioa eteten du berriro ere.

ROSA: Berrito grabatzen? Mario, nire alabarekin ezkontzeko baimena eman nizunean etxera gizon bat zetorrela uste nuen, ez grabagailu bati pegatutako txontxongilo bat. Ah, bide batez, ez duzu ondo begiratu, antza, jaboia kuboan zegoen. (Erratza ematen dio). Lehenago erratza pasa. (Grabadora hartu eta barrara darama. Grabatazen du). Barkatu, don Pablo, baina molestia handirik ez bada, Mariok lan apur bat egin behar du.

MARIO: Zergatik egin duzu hori?

Mariok eskobatzen du Rosak zapiarekin barra eta inguruko objektuak garbitzen dituen bitartean. Barra gainean uzten ditu.

MARIO: Hotzitu naizela uste dut.

ROSA: Bai...

MARIO: Alergia izan liteke.

ROSA: Alergia.

MARIO: Badakizu, Don Pablo ere ez omen dago oso ondo.... bere gutunean esan zidan. Parisen hotz izugarria omen dago...

ROSA: Eta zergatik ez da itzultzen? Don Pablo gustorago dago Parisen, langosta jaten.

Ustekabean Rosak lurrera botatzen du grabadora, beste objektuek bultzaturik. Mariok eskobatzeari uzten dio. Grabadora azkar jaso eta mahaira darama probatzera. Rosak penaturik ikusten du.

MARIO: Ez dabil!

Beatriz eta Labbe sartzen dira. Labbek emakumearen boltsak dakartza.

LABBE: ... Sinesten ez badidazu frogatu beharko dizut. (Barre egiten dute).

Beatrizek kopeta iluntzen du zerbait gertatu dela ikustean.

BEATRIZ: Zer gertatu da?

MARIO (Jeloskor): Ezer ez.

ROSA: Istripu bat izan da. Grabagailua lurrera erori da.

BEATRIZ: Ez dabil?

MARIO: Ez.

ROSA (Labberi boltsak hartuz): Mila esker nire alabari laguntzeagatik, Labbe jauna.

LABBE: Atsegin handia izan da. Gauza batzu lortu dizkizuet. Uste dut ondo etorriko zaizkizuela.

Mario altzatu era Labberi aurre egiten dio.

MARIO: Ez dugu ezer nahi zugandik!

ROSA: Mario!

MARIO:Zu ez zaitetz sartu, Doña Rosa.

BEATRIZ: Baina Mario...

MARIO: Beatriz!

LABBE: Neurritik irteten ari zarela uste dut, Mario.

MARIO: Alde hemendik eta eraman itzazu gezur guzti horiek! (Idazkia botatzen dio, Labbek hartzen du).

LABBE: Gezurra al da amildegira goazela? Gezurra ote da merkatu eta denda guztiak hutsik daudela? Galdeiozu zure emazteari zer den merkatuan lortu duen bakarra: patatak eta patatak, besterik ez. Eta zopa egiteko barazki ale apurrak. Non dira Ezkerraren Batasunak agindu zizkizuen ehundaka udatiar horiek?

MARIO: Etorri egin ziren.

LABBE: Eta zergatik ez dira berriro etorri?

BEATRIZ: Hori egia da, Mario.

LABBE: Hemen dio: "Sobietar gaixoek baino gose handiagoa sufritzen du ko populu heroikoak".
Ez al da egia?

MARIO: Zeuen erruagatik da. Zuk zeuk komertzioaren beste greba baten buru izateko mehatxua egin zenuen. Garraioaren grebarekin nahikoa ez bagenu bezela! Produkzioa sabotageatzen ari zarete, zeuen biltegietan jakiak pilatzen ari zarete.

LABBE: Hori gezurra da!! Hori, iruzurra besterik ez da. Nork sartu dizkizu gauza horiek buruan, Mario? Zeuen hitzetan, krisialdia "prozesu sozial eta politikoen kontraesanengatik" suertatzen omen dira. Anarkista bihurtu al zara, Mario?

MARIO: Alde hemendik, Labbe. Utzi bakean!

LABBE: Ondo da. Andereak...

ROSA: Labbe jauna...

LABBE: Ez barkamenik eskatu, Doña Rosa, hemen ez da ezer gertatu. (Badoa).

ROSA: Zoratuta zaude? Gure hondamendia nahi duzu, ala?

Mariok ez du entzuten. Grabagailua dagoen mahaira doa.

ROSA: Beatriz. Esaiozu zerbait!

BEATRIZ: Utziozu, ama.

MARIO: Ez dabil. Apurtu egin da. Apurtu egin da...

Rosa tabernatik irteten da.

BEATRIZ: Nora zoaz?

ROSA: Labbe jaunari barkamena eskatzera. Beranduegi ez al da izango!

Mario eta Beatriz bakarrik geratzen dira.

BEATRIZ: Mario, gauza horiek gure semearentzat behar genituen.

MARIO: Neuk lortuko ditut.

BEATRIZ: Non, baina?

MARIO: Nonbait!

BEATRIZ: Gauzak ez dira horren errezak.

MARIO: Badakit. (Etena). Ikusiko duzu dena nola konpontzen den. Labbe jaunak ez daki ezer, Beatriz. Allendek irabazi zuenean urtebete baino ez zuela iraungo esan zuen eta bi urte pasa dira dagoeneko. Badakizu Allende zintzoa dela. Haur bakoitzari egunero esne litro erdia banatzeko agindua eman zuenean ez zen inor kexatu. Edo etxeke andreak besteak bezalako langileak lez tratatzeko esan zuenean.

BEATRIZ: Dena aldatzen ari da, Mario. Allendek kasu gehiago egin beharko lieke beste alderdiei.

MARIO: Zertarako? Atzera egiteko?

BEATRIZ: Besterik ez bada, lasaiago bizitzeko.

MARIO: Lasaiago... Hauteskundeak errespetatuko balituzte, orduan bai, orduan lasaiago egongo ginateke.

Isiltasuna.

MARIO: Gaur Don Pablok Matilderi, bere emazteari, idatzi zion poema bat irakurri dut. Liburutik kopia dut behin eta berriro, ikasteko. (Ateratzen du).

Egia esan, zuretzat izatea nahiko nukeen, eta neronek idatzitakoa. Baina nik ez dut sekula horren gauza politak esaten jakingo, inoiz ez. "Matilderentzako Sonetoa" du izena. Irakurtzazu, arren. Zuretzat izatea nahiko nuke; dena den, Don Pabloren hitzekin ere ezinezkoa da zenbat maite zaitudan azaltzea.

BEATRIZ: Maite zaitut ta ez zaitut maite bizitzak alde bi dituelako isiltasunaren hegoa da hitza suaren bestaldea, izotzekoa.

Maitatzen hasteko maite zaitut
infinitoan berriz sartzeko
betikoz maitatzeko, horregatik
ez zaitut oraindik maite.
Maite zaitut, baina ez; aldiberean
pozaren giltza banu bezala,
eta halako patu zorigabea.
Bizitza bi daude ene maitasunean.
Maite ez zaitudanean maite zaitut,
eta maite zaitudanean maite zaitut.

Poema bukatzean, besarkatu egingo dira, Cosmeren sarrerak geldiaraziko duena.

COSME: Mario! Mario! Don Pablo bueltan dator!

MARIO: Zer?

COSME: Irratiaz esan berri dute. Don Pablo itzuliko da.

MARIO: Don Pablo dator! Baina noiz?

COSME: Hilaren bukaeran. Hilaren bukaeran itzuliko omen da.

MARIO: Hile honen bukaeran?

COSME: Baietz, ba!

MARIO: Ezer esan al dute bere gaixotasunaz?

COSME: Ez, ez dute ezer esan. Baliteke sendaturik egotea. Txarto egotera, ez litzateke itzultzeko gauza izango, ez duzu uste?

MARIO: Don Pablo dator, Beatriz! Don Pablo dator!

Mariok Cosme besarkatzen du. Gero Beatriz. Ondoren Off-a entzungo da.

Boza. Santiago. Komando faszista batek Arturo Araya Peters, Allende Presidentearen Itxas Armadako Edecana, hil du. Atentatua Edecanaren etxean bertan gertatu zen. Une honetan, Allende Presidentea krimenaren tokira doa, bere gobernuko zenbait kiderekin batera. Langileen Zentral Bakarrak dei egin dio Txileko langilego guztiari euren lanpostuetan alarma egoeran egotera bestelako agindurik jaso arte.

XIII

Posta bulegoa. Cosme gutunak klasifikatzen. Mario sartzen da.

COSME: Mario.

MARIO: Gutun hau itzultzerato Rosa: Hartzailea ez da jada San Antonion bizi.

COSME: Ondo da. Bidali dizkiozu Don Pablori gutunak?

MARIO: (Triste). Bai, baina gaur ere ez dut ikusterik izan. Matildek ez du inork molestatzea nahi.

COSME: Ulertzekoa da, Mario. Poetak atsedena behar du. Pazientzia behar duzu. Ikusiko duzu. Laster bere onera itzuliko da dena.

MARIO: Ez dakit, ba; ez dakit, ba.

COSME: Oraindik ez dakite zer duen?

MARIO: Matildek ez dit ezer esan, behintzat. Baina zerbait larria ote den susmoa daukat.

COSME: Etzazula holakorik pentsatu, Mario. Zihurrenik oraindino ez dakite zer duen. Normala da bere adinean ajeak izatea. Neuk ere baditut.

MARIO: Bai...

COSME: Entzun, Mario, bihar edo etzi Matildek pasatzen utziko bazintu, galdegiozu Don Pablori egoera nola ikusten duen, gertatzen ari dena, berak ondo jakingo du eta.

MARIO: Sufritzen ari da, ziur; gainera, gaixorik egonda...

Cosmek egunkari bat erakusten dio.

COSME: Irakurri al duzu hau? Begira zer dioen miliko zantar honek.

MARIO: Noiztik hasi zara erreakzionarioen egunkaria erosten?

COSME: Ez dut erosten, utzi egin didate. Entzun. "Mailik goreneko betebeharrak burutu behar dituzten gizonen hautaketa ezin daiteke masa ezjakin, biziatsu eta interes amankomunaren zentzurik gabekoen eskutan laga... Demokrazia mitoa eta aberrazioa da, eta ziur aski, jasaten ari garen arazo politikoaren iturria" Eta aurrerago dio: "Asmo politiko salbatzaile hau aurrera eramateko bazter batean utzi behar ditugu Alderdiak, hauteskundeetako maskarada, propaganda gezurti eta pozoitsua... Eta aukeratutako militar talde bati anarkia politikoarekin bukatzeko lana eman" (Etena). Zer deritzozu?

MARIO: Cosme?

COSME: Ez da maitasun poema bat. Hau gero eta itxusiago dago, ezta, ez dugu lasaitasuna galdu behar, Mario. Martxoko hauteskundeak berriro ere irabazi genituenetik, gure hondamendia bilatzen ari dira.

COSME: Badakit, badakit. Baina herriak geldiaraziko dituela dakit ere. Herri batuak sekulako indarra du, Mario.

COSME: I.A.-k ez multinazionalak ez gaituzte akabatuko.

MARIO: Zer diote besteek? Zer eritzi dute hau guztiaz? Badirudi Allendek ezin dituela militarrek kontrolatu.

COSME: Batzuen ustez, benetako estatu kolpe baterako prestatu beharko genuke. Tanketazoarena abisu bat besterik ez omen zen izan.

MARIO: Eta zuk zer uste duzu?

COSME: Militarrik gehienak demokraziaren alde daude. Ez dugu hori ahaztu behar Rosa: Konfidantza mantendu behar dugu. Tanketazoaren egunean militar asko irten zen Konstituzioa defenditzera, ez Prats bakarrik. Han egon ziren Sepulveda, Pickering eta Pinochet ere.

MARIO: Baina gauzak ez dira konpondu. Nork kontrolatzen ditu farbriketara soldaduak hiltzera sartzen diren soldaduak? Gogoratu Lanera Austral-en gertatu zena!

COSME: Entzun, Mario, kasurik txarreanean... ko langileak militar leialen alde aterako dira... Eta denek ezagutzen dute gure indarra...

MARIO: Ezkerra gero eta bananduago dago, ordea. Gainera, Prats komandanteak dimititu egingo omen du.

COSME: Nork esan dizu hori? Jendea urduri dagoenean, tontakeriak baino ez ditu estaen.

Etena. Mariok berarentzako gutun handi bat dagoela ikusten du.

MARIO: Niretzat da?

COSME: A, bai. Sinisten ez baduzu ere, azkenean zure lehengusu Gustabok agindu zizun aldizkari hori heldu da.

MARIO: Aldizkaria.

COSME: Bai. Pozik zaude, ezta?

MARIO: Nire aitari emango diot.

COSME: Hollywoodeko aktorezarik ederrenak. Estatu Batuetako blokeoa jasaten ari garen urteotan handik etorritako gauzarik atseginena dela uste dut. (...) Mario, alaitu kopeta hori! Don Pablorigatik kezkatuta zaude, ezta? Tira, dena bere onera itzuliko da. Konturatu orduko, poeta sendatuko da, eta berarekin nahi adina hitz egin ahal izango duzu. (...) Zer deritzozu? Sendatzen denean halako ekitaldi bat antolatu genezake: berak bere poemak errezzitatuko lituzke, eta zuk zeureak.

MARIO: A ze gauzak dituzun, Cosme.

COSME: Ideia bikaina da, gainera lagunen gogoia alaitzeko modurik egokiena litzateke. "San Antonioko "Ezker Batasuna"-k antolaturiko ekitaldi politiko -kulturala. Errezitatuko dute: Pabalo Nerudak eta Mario Jimenezek" Zer deritzozu?

MARIO: Baina nola irakurriko dut, ba, nik, Don Pablorigin batera...

COSME: Don Pablok pozik onartuko du, batez ere zure poesia gero eta ikusiko lukeelako, gero eta militanteagoa, berea bezala.

MARIO: Ez dago konparatzerik... Don Pablo.... Don Pablo poeta da.

COSME:

COSME: Eta zeu ere. Asko gustatzen zaizkit zure poemak. Martxoko garaipena ospatu genuenean irakurri zenituenak zureak dira, ezta?

MARIO: Bai.

COSME: Bada, oso politak ziren, denek esan zuten.

MARIO: Baina ez, ezin daiteke konparatu, Cosme. Don Pablok bakarrik beharko luke. Nik ez.

COSME: Beno, baina ideia ona iruditzen zaizu, ala ez?

MARIO: Aurrena sendatu beharko luke.

COSME: Sendatu egingo da, Mario.

MARIO: Ea egia den... Joan beharra daukat. Gero arte.

COSME: Gero arte.

Mario irten hasten da.

COSME: A, Mario, ez dakit nork esan dizun, baina Pratsek ez du uko egingo. Eta egitekotan, Allendek beti izango du Pinochet alboan.



XIV

Ostatua. Mariok eskena gurutzatzen du, kaleko ateruntz.

BEATRIZ: Ez zaitetz joan, Mario!

MARIO: Joan egin behar dut, Beatriz, joan egin behar dut.

BEATRIZ: Itxaron ilundu arte, sikan. Orduan errezagoa izango da. Mario, jende asko atxilotu dute eta hildakoren bat ere omen dago.

MARIO: Ezin dut itxaron, baliteke beranduegi izatea, Don Pablo hiltzen ari da!

BEATRIZ: Orain ez zara iritsiko inork ikusi gabe. Soldaduz josita dago dena. Bide guztiak moztuta daude.

MARIO: Bere korreoa eramatera noa, besterik ez.

BEATRIZ: Ez zaituzte pasatzen uztiko! Atxilotu egingo zaituzte! Hemen denok gara ezagunak, Mario. Denek dakite Ezker Batasunaren alde lan egin duzula, bileretara joan zarela... Ez al zara konturatzen?

MARIO:(...) Ordu bete barru bueltan izango naiz. Nere hitza duzu.

BEATRIZ: Entzun Mario, gogoratu zure semeaz. Mario, ez nazazu utzi, beldurrez nago.

MARIO: Gera zaitetz amarekin. Ni nere lana betetzera noa, besterik ez.

Ateari joka hasten dira. Ez dira muagitzen. Rosa barrukaldetik sartzen da. (Off) Mario! Mario! Neu naiz, Cosme. Ireki, nau naiz, Cosme. Mariok zabaltzen du. Cosme sartzen da.

MARIO:Ze berri dago?

COSME: Gauza handirik ez. Prats komandanteak golpistei aurre egin omen die, baina baliteke zurrumuru bat besterik ez izatea. Egia esan, uste baino militar traidore gehiago dago.

Mementuz agindua zera da: Alderdiaren identifikatzen gaituen edozertaz libratzea. Den dena erre behar dugu. Ulertu didazu?

MARIO: Bai.

COSME: Lasai egon behar dugu, ez dago besterik egiterik. Antolatu beharko ginateke, ze arraio, hori litzateke geure indarra, baina militarrek azkarregi heldu dira. Horrela ez dago erantzuterik.

BEATRIZ: Zer gertatuko da militarrek nahi dutena lortzen badute?

COSME: Orduan hemendik ospa egiteaz pentsatzen hasi beharko genuke.

MARIO: Aldegitea? Nora?

COSME: Txiletik irten beharko genuke.

MARIO: Zergatik diozu hori? Ni ez naiz inora joango.

ROSA: Esajeratzen ari zarela uste dut, Don Cosme.

COSME: Zuhurra izan beharra daukat, Doña Rosa, ez naiz jada mutiko bat. Mariok nahi duena egin dezake. Desagertu beharko genuke, gauzak nondik doazen ikusi arte itxaron eta ahal izan ezkerro, iztuli. Ez dakit militarrek zer egiteko asmoa duten. Agian demokristianoei poterea eman besterik ez dute nahi, ez dakit, baina badaezpada, ni ez nintzateke hemen ikusten

MARIO: Emaizkidazu bulegoko giltzak, Cosme.

COSME: Zer diozu, ba? Txoratuta zaude? Nora joan nahi duzu?

BEATRIZ: Cosmek arrazoi du, Mario. Prestatzen hasi beharko genuke, ezkutatu beharra suertatzen bada ere.

MARIO: Zeuk ere aldegin nahi duzu? Zuei ez dizuete ezer egingo, ezta, Cosme?

COSME: Ez dakit.

MARIO: Nola ez dakizula?

ROSA: Horrek ez du zentzurik. Zer dela eta egin beharko ziguten guri kalterik?

BEATRIZ: Ama, zuk zeuk esan duzu, ba, jende mordoa atxilotzen ari direla, fusilamenduak direla... Zer dakizu horretaz, Don Cosme?

COSME: Ez dago Santiagon edo Valparaison gertatzen ari dena jakiterik. Egia da San Antonion tiro hotsak entzun direla portu aldean, baina ez dakit besterik. Jendea oso urduri dago.

MARIO: Aidera jaurtikitako tiroak izan litezke, bildurtzeko.

ROSA: Edo baliteke eroren batek soldaduei aurre egitea. Gobernuak armak banatu omen zituen fabriketan, beraz normala da soldaduek edozeini apuntatzea.

BEATRIZ: Hemen denek dakite armarik ez dagoela, ama.

COSME: Allendek ez zuen holakorik egin, ez zuen inoiz onartu jendeak armak lortzerik. Hori matxinatzeko erabili duten aitzakia besterik ez da izan. Hobe genuke defenditzeko modurik bagenu. Gure aitzindariak edozein estatu kolperi aurre egiteko prest geundela zioten, baina benetako orduan, ez da modurik egon. Inozo hutsak izan gara. Allende gaixoa... Berak agindu lez, herriaren mandatua azken unerarte bete du.

MARIO: Dena susmatzekoa zen. Emaizkidazu giltzak, Cosme. Presidenteak nork bere lanpostuan jaraitu behar zuela ez al zuen ba esan? Bertara joan, Don Pablorentzako korreoa hartu eta eraman egingo diot.

BEATRIZ: Mario, oso arriskutsua da, ez joan, mesedez.

Rosa atera doa.

BEATRIZ: Eta zuk zer egin nahi duzu, ama?

ROSA: Taberna irekitzera noa. Ez dezatela pentsa ezer izkutatzen dugunik. Lasai jokutzen badugu ez digute ezer egingo, gutariko inori ez.

MARIO: Giltzak, Cosme. Ordubete baino lehenago itzuliko naiz, Beatriz. Itzultzen naizenean denetaz pentsatuko dugu, hitz ematen dizut. Ez da ezer gertatuko, ikusiko duzu. Dena konponduko da.

COSME: Tori. (Giltzak ematen dizkio). Eta nitaz galdetzen badizute, esaiezu ez dakizula ezer, ez nauzula ikusi, ados?

Mario badoa.

COSME: Andereak, anka egitera noa.

COSME badoa.



XV

Nerudaren etxeko kanpoaldea. Neruda etzanda dago aulki edo hamaka batean. Mario sartzen da etxearen barrukaldetik.

MARIO: Don Pablo.

PABLO: Mario, nola moldatu zara hona iristeko?

MARIO: Itzuli handia eginez etorri naiz, hondartzatik. Bestaldetik sartu naiz, Matilderen laguntzarekin. Lehiotik ikusi nau. Poeta...

PABLO: Eta soldaduak?

MARIO: Etxea inguratuta daukate, hesi bat ereiki dute. Kamioi bat dago ere. Baina ez naute ikusi.

PABLO: Gehiegi arriskatzen ari zara, Mario.

MARIO: Etorri beharra nuen, Don Pablo.

PABLO: Ondo da, Mario, pozten nau zu ikusteak.

MARIO: Zertan ari zara hemen, kanpoan?

PABLO: Harnasa hartu beharra nuen. Haizeak besarka nazan nahi dut, bere kantua xuxurla diezadan.

MARIO: Baina hozkirria dago, eta zu...

PABLO: Entzun ze errima ederra! Haizearen hotza erlatiboa da! Sentituko bazenu hezur barruak astintzen dizkidan haize izoztua! Azken uneko haiztoa zorrotza da, mutiko.

MARIO: Medikuari hots egiteko esango diot Matilderi, nahi baduzu.

PABLO: Ez daukat jada medikuaren beharrik, seme, hobe lukete zuzenean lurperatzaileari deitzea.

MARIO: Ez esan horrelakorik, Don Pablo.

PABLO: Lurperatzaile lanbide ona da, Mario. Filosofia ikasten da. Hamlet bere espekulazioetan nahasturik dagoen unean lurperatzailea da aholku ematen diona: "Bilazazu andre mardula eta ahaztu tontakeria horiek!"

MARIO: Don Pablo, zurea larria da, benetan?

PABLO: Hara, sukar honekin arraina sartaginean bezala sentitzen naiz. Shakespearerekin hasi garenez, Mercuriok "Romeo eta Julietan" bezela erantzungo dizut, Tybaldoren ezpata sartuta lurrera erorita dagoenean: "Zauria ez da putzu bat bezain sakona, ezta elizaren atea bezain zabala, baina nahikoa da. Galde zazu nitaz bihar eta ikusiko duzu nola nagoen lehor lehorra."

Nerudak altzatu nahi du.

MARIO: Mesedez, ez zaitetz altzatu, poeta.

PABLO: Lagunduidazu, itsas ertzeraino iritsi nahi dut.

MARIO: Matilderi deitu beharko genioke, Don Pablo...

PABLO: Zure zelestinoa eta ezkontzako aitabitxia naiz. Nire lumaren izerdiarekin irabazitako titulo horien izenean agintzen dizut itxas ertzeraino joaten laguntzeko.

MARIO: Baina zu ez zaude ondo, Don Pablo.

PABLO: Bai zera, hiltzear nago. Hortaz aparte ezer larririk ez. Ea, eraman nazazu itxasoraino, itxasoa ikusi nahi dut eta. Edo hori ere eraman egin dute, bada? Hori ere kaiolan sartu didate?

MARIO: Ez, Don Pablo, itsasoa bertan dirau.

PABLO: Ikusi egin nahi dut.

Hondartzarantz doaz.

MARIO: Kiskaltzen zaude, don Pablo.

PABLO: Esaidazu metaforaren bat lasai hiltzeko, mutiko.

MARIO: Ez zait metaforarik okurritzen, poeta.

PABLO: Mario, eta lehiaketa horretara aurkeztu zenuen poema?

MARIO: Ez nuen irabazi.

PABLO: Lastima... Poema ederra zen.

MARIO: Don Pablo, entzun zazu ondo esan behar dizudana.

PABLO: Entzuten ari naiz, seme.

MARIO: Beno, hogei telegrama baino gehiago iritsi zaizkizu. Ez ditut ekarri kontrolak daudelako, eta kentzeko bildur nintzelako. Beno... orduan... barkatuko didazu egin dudana, baina ez zegoen beste erremediorik.

PABLO: Zer egin duzu?

MARIO: Telegrama guztiak irakurri eta buruz ikasi ditut, zuri esan ahal izateko.

PABLO: Nondik datoz?

MARIO: Toki askotatik. Sueziakoarekin hasiko naiz?

PABLO: Aurrera.

MARIO: "Mina eta haserrea Allende Presidentearen hilketa. Gobernu eta herriak asiloa eskeini Pablo Neruda Poetari, Suezia."

PABLO: Beste bat.

MARIO: "Mexikok Neruda eta familiari abioia eskeini hona laster etortzeko"

Neruda erori egiten da. Mariok eusten dio.

MARIO: Ez zait ez hil, poeta. (Aulkira eramaten du).

PABLO: Zure semea ez ezagutzeko pena daukat.

MARIO: Bere fotografia daukat. (Ateratzen du).

PABLO: Eta zeren zai zaude? Erakutsidazu. (Ikusten du). Oso guapoa da, amaren ezpalekoa.

Etxera hurbiltzen diren motor hotsak entzuten dira. Militarrak dira.

PABLO: Zer da zarata hori?

Mario ikustera doa eta Nerudarengana itzultzen da.

PABLO: Zer gertatzen da?

MARIO: Ez da ezer, Don Pablo. Zergatik ez goaz barrura?

PABLO: Ez gezurrik esan, mutiko.

MARIO: (Etena). Soldadu gehiago datoz.

PABLO: Zoaz, Mario, arriskuan zaude.

MARIO: Don Pablo, beste telegrama bat dago.

PABLO: Utziozu, Mario, joan egin behar duzu. (Berriro ere erortzen da).

MARIO: Don Pablo!


PABLO: Joan! Ni ere banoa, banoa liburutik, liburuetatik. Bidai honetatik eta beste guztietatik ere. Lungari, Lantano eta Parralen nire zai daude, ibai ondoetan, herrixketan, zine eta eskoletan, laranjak bezain txikiak diren eskoletan. Ez daukat presarik. Toki guztietara iritsi nintzen. Ibiltzen joango naiz, txistuka. Udaberriaz edo beltzez jantzita, euri egiten joango naiz toki guztietara, kantatzen. Gorrotoari nire zaldi ferrak emango dizkiot, nire marinel alkondara, nire ibiltari zapatak, nire arotz bihotza, eginten jakin nuena, sufritzen lagundu zidana, gogor nahiz garbia, hautsezina nahiz emigrantea; Munduak jakin dezan basoa eta ura dutenak egurra moztu eta nabigatu dezaketela, joan daitezkeela, eta itzuli, sufritu dezaketela eta maitatu, eduki dezaketela, eta lan egin, izan eta jarraitu, loratu eta hil, ilunak edo izan, belarririk

gabekoak izan, nahigabeak jasan, lore baten zain egon... Agur, lagun maitea, lagun maitea....
Nola duzu izena?

MARIO: Don Pablo, Don Pablo, neu naiz, Mario.

PABLO: Mario, Maria Jimenez, ene laguna...

Sirena eta militarren ibilgailuen hotsak. Soldaduak hurbiltzen entzuten dira. Zarata gero eta
ozenagoa da, argia ilunduz doan heinean, erabateko iluntasunerarte.



Epilogoa

Urte batzu geroago. Itxaron gela bat. Idaz makinaren hotsa entzuten da. Beatriz eserita dago. Rosa sartzen da, eta bere alabaren ondoan eseri. Aspalditik ate bati begira daudela antzematen da.

ROSA: Ez da inor atera oraindik?

BEATRIZ: Ez.

ROSA: Eta ez da atea ezerterako zabaldu? Ez dut ulertzen zergatik ez diguten jaramonik egiten.

BEATRIZ: Hobe genuke bihar etortzea.

ROSA: Nazkatuta nauka luzamendutan ibiltze honek. Lehengo astean egun bi egon ginen zain, eta astelehenean gaur etortzeko esan ziguten. Ez dago hola tratatzeko eskubiderik! Ezagutuko ez ba gintu bezala!

BEATRIZ: Lanpeturik dago, antza. Denak daude lanpeturik.

ROSA: Idazkariari berriro nortzu garen esan behar diogu. Baliteke okerren bat egotea, nahaste bat...

BEATRIZ: Ondotxo dakite nortzu garen, eta Mariori buruz galdetzera etorri garela.

ROSA: Hainbeste denbora daramagunez, agian joan egin garela pentsatzen dute. Atean joko dut hemen gaudela jakin dezaten.

BEATRIZ: Utziozu, ama.

ROSA: Orduan, zer egingo dugu?

BEATRIZ: Itxaron. Itxaroten jarraitu.

ROSA: Itxaroten jarraitu.

Rosak bere alaba besarkatzen du. Eserita jarraitzen dute.

Andre baten ahotsa:

"...Mario Jimenezen kasuari buruz, tamalez, inolako berririk ez dagoela jakin arazten dizuegu. Poliziak berretsi digu ez dela inon ageri Mario Jimenez jaunaren atxiloketarik, ez 1973 urteko irailan ez eta geroago ere. Poliziak darabilen hipotesia zera da, Mario Jimenezek Txiletik aldegin zuela sare klandestino bat erabiliz. Ziur aski, gaur egun Cuba edo Sobiet Batasunaren inguruko nazio batean bizi da.

Bestaldetik, Labbe Jaunak bere dolumina adierazi nahi dizue Pablo Neruda poeta eta lagun urkoaren heriotza dela eta.

Maria Adelaida Arteaga, Alfredo Labberen idazkaria.

